

**15. (1471-1480)**





## 15.1. 1471. URTEA

**15.1.1. Gipuzkoako Batzarrak, Otabartza, Urain, etab.**

Gipuzkoan 1471. urtean lehenbizi Elgoibarren bildu ziren Batzar Nagusiak. 1478-III-18an Erregeak Segovian ahalmena eman zion Probintziari eskribau eta lekuko faltsuen auzietan epaile izan zedin.

Maiatzean ere Batzarren bat egin zen, zeren erregea Urduñan zela Probintziak prokuradoreak bidali baitzizkion, 1471-V-15eko agiriak dioenez. Delako prokuradoreak hauek ziren: Joan Perez Bikuñakoa batxilerra, Joan Saez Elduaingoa, Domenjon Gonzalez Andiakoa, Lope Martinez Zarauzkoa, etab. Erregeak baimena eman zien Probintzia nafarrekin nafarrek Probintziarekin bezalaxe porta zedin<sup>1</sup>. Probintziak bere mugak ongi zaindu behar zituen, Nafarroarekin zituenak batez ere<sup>2</sup>.

1471ko uztailean Arrasaten bildu ziren Gipuzkoako Batzar Nagusiak<sup>3</sup>.

1471-VIII-12an Bidaniko Usarragan bildu ziren Gipuzkoako Batzar Bereziak, eta, bertan, Donostia, Errenteria eta Oiartzunen artean zituzten auziak aztertu zituzten<sup>2</sup>. Hurrengo Batzar Nagusiak Hondarribian egin ziren<sup>1</sup>.

Bestalde, 1471-XI-19an Debako Andre Mariaren elizan hiribilduko Kontzejua Zumaiako prokuradoreekin bildu zen. Bi hiribilduak ez zetozen ados Otabartzako mendiei eta Uraingo prestazioko lurrei buruz, eta auziari konponbidea eman nahi zioten. Orduan ituna egin zuten Debak eta Zumaiak, baina Zumaiako Orreagako komentuaeren ordezkari ere izanik. Lehen (1391n) Otxoa Martinez Iribekoak eta bere lagun arbitroek epaia emana zuten, baina orduan sartutako mugarriak denboran zehar deuseztatu egin ziren eta ez zekiten ziur mugak nondik noraino heltzen ziren.

15.1. irudia. Itziarko Urain baserria.



Beraz, bi hiribilduek ituna egin zuten. Batetik, Otabartzako mendia erdibana izango zuten Debak eta Zumaiak, zumaiarren erdian Orreagak ere parte izanik. Lurraren jurisdikzioa Debarena izango zen, baina Zumaiak prestazioa izango zuen Otabartzako mendian eta arbitroen epaian zehazten ziren beste lurretan. Beste zenbait baldintza ere onartu zuten bi hiribilduek Otabartzako mendia ustiatzeko eta, zegokionean, saltzeko<sup>4</sup>.

1471. urtea zorigaiztokoa izan zen Haroko kondearentzat eta Salinasko kondearentzat. Harokoa bere tropekin, Salinasko kondea ere lagun zuela, Bizkaira sartu zen, ustez jaurreria bereganatzekotan; erregea ahul baitzebilen. Trebiñuko kondea, berriz, Harokoaren aurkari sutsua zen, eta Joan Alonso Muxika eta Pedro Abendaño adiskidetu egin zituen<sup>5</sup>. Borroka Mungian izan zen, 1471-IV-27an, eta Haroko kondea garaitu egin zuten, Salinasko kondea (eta Antso Belasko) preso hartu zuten, eta hainbat soldadu hilik suertatu ziren. Kantak ere atera zituzten gertaera haren oroigarri. Baten zatia honako hau da: “Lelori lelo sara i leloa,/ Bilbaon catigu dago Salinasgoa./ Kalea bera burua bax(...)n daroa./ Ser ete dan amorardu guexoa/”<sup>6</sup>.

1471-VIII-20an Enrike IV.a erregeak dei egin zien Segoviatik Arrasateko hiribilduari eta Estibalitz Otalorari haren Gortera joan zitezen. Estibalitz Otalorak eta Trebiñuko kondeak hurrenez hurren ehun mila eta

berrogeita hamar mila marai hartuak zituzten Arrasateetik, eta erregeak kontuak eskatu zituzkien<sup>7</sup>.

1471. urtean Iruñeko elizbarrutiko bikario nagusiak, Domingo Orreagak, Nafarroako Pierres Peralta kondestablea eta honen laguntzaileak eskumikatu egin zituen, 1468an Nikolas Etxabarri apezpikua hil izanagatik. Kondestablea haserre bizian jarri zen, baina geroxeago, 1471-IV-11n, Paulo II.a aita santuak bikario nagusiak egina onetsi eta izendatuta eskumikatu zituen Pierres eta laguntzaile izan zituenak<sup>8</sup>.

Geroxeago, 1471-V-30ean, Nafarroako Joan I.a erregeak alaba Leonor eta suhi Gaston Foixkoarekin ituna sinatu zuen Erriberrin. Leonor eta Gaston izango ziren Nafarroako errege-erregina Joan hiltzen zenean, eta, bitartean, Nafarroako gobernadore izango ziren. Bide batez, iraganean egindako krimen politiko guztientzat amnistia eman zuten. Pierres Peralta, beraz, erregearen justiziatik aske geratu zen apezpikua hiltzetik<sup>9</sup>.

Bestalde, 1471-IX-11n Sixto IV.a aita santuak ontzat eman zion Zaragozako Joan Aragoikoa artzapezpikuari (Aragoiko Joan II.a erregearen sasiko semea) Valdonsellako artzapez-barrutia Iruñeko elizbarrutiari kendu eta Zaragozakoari eranstea. Iruñeko kalonjeek kexa azaldu zuten Almeriako apezpiku zen Joan Getariaren bidez<sup>8</sup>.

## 15.2. 1472. URTEA

### 15.2.1. Zestoa Batzar-hiribildu, Debako Aranogibelgo auzia, etab.

1472-II-17an Enrike IV.a erregeak, Gipuzkoako prokuradoreek hala eskatuta, Toledoko Escalona-n gutun bat egin zuen eskeko zenbait fraideri testamenturik egin gabe hiltzen zirenen inguruan emandako pribilegioak deuseztatuz. Egun bereko beste gutun batean

Gipuzkoak Iñigo Belez Gebarakoari emandako ahalmenak kentzea eskatu ziola aipatzen da.

1472. urtean Gipuzkoako Batzar Nagusiak Errenterian bildu ziren. Horixe adierazi zuen du Enrike IV.a erregeak Segovian irailaren 26an sinatutako agiri batean. 1472-X-26an egindakoan, berriz, Gaztelako erregeak Gipuzkoako Batzar Nagusiak zein ordena-

tan eta nola egin behar ziren zehaztu zuen. Probin-  
tziak eskea egin zion erregeari Domenjon Gonzale-  
zek sinatuta. Eskabidean eskribau fielak zioenez,  
Batzarrak ibarka egin behar ziren, baina azkenaldian  
ordena ez zen errespetatu, eta hiribilduren batek ber-  
tan Batzarrak biltzeari oztopoak ere ipini zizkion.

Erregeak eskea onetsi egin zuen eta, aurrerantze-  
an, Batzarren egutegia honako hau izango zen:  
1472an Erreterian (udaberrian ospatua zen) eta Zes-  
toan (udazkenean); 1473an Seguran (udaberrian) eta  
Azpeitian (udazkenean); 1474an Zarautzen (udabe-  
rrian) eta Ordizian (udazkenean); 1475ean Azkoitian  
(udaberrian) eta Zumaian (udazkenean); 1476an  
Hondarribian (udaberrian) eta Bergaran (udazkene-  
an); 1477an Mutrikun eta Tolosan; 1478an Arrasaten  
eta Donostian; 1479an Hernanin eta Elgoibarren;  
1480an Deban eta Erreterian, eta 1481ean Getarian  
eta Zestoan. Hortik aurrera zikloa errepikatu egingo  
zen, behin eta berriz, adierazitako ordenan. Beraz,

bederatzi hiribildu udaberrian Batzarrak egitekoak  
izango ziren, eta beste bederatziak udazkenean egite-  
koak.

Hortaz, hurrengo Batzar Nagusiak Zestoan, azaro-  
abendutan bilduko ziren, eta hurrengo urteko maia-  
tzean Seguran (azken 18 urtean hiribildu horretan ez  
ziren Batzarrak bildu)<sup>1</sup>. Batzar Nagusiek 25na egun  
irauten zuten. Domu Santu egunetik 13 egunera has-  
ten ziren udazkenekoak, eta Pazko garizumakotik 13  
egunera udaberrikoak<sup>10</sup>.

Enrike IV.a erregeak Soriako Agredan 1472-XII-  
12an egindako agirian zioenez, ermandade-alkateek  
epaituko zituzten eskribau eta lekuko faltsuak<sup>2</sup>.

Esanda bezala, hurrengo udazkenean, 1472ko  
azaro-abenduetan, Zestoan bildu ziren Gipuzkoako  
Batzar Nagusiak. Bertan Aranogibelgo mendi eta  
larreetan Debak eta Elgoibarrek zuten auziaz epaia



15.2. irudia. Zestoako Batzar Nagusien gela.

eman zuten Martin Ibañez Lertxundikoa eta Joan Martinez Aierdikoa batxilerrek, Batzar Nagusiek aginduta. Epaia Zestoako Liliko sagastian aditzera eman zuten, Martin Diaz Lilikoaren lurretan. Debako Udal Artxiboan jasota dago epaiaren agiria, 1472-XII-3ko dataz, eta bertan dioenez, Zestoan Batzar Nagusiak ospatzen ari ziren<sup>4</sup>. Agiri bera Elgoibarko Udal Artxiboan ere badago<sup>11</sup>, baina 1462-XII-3ko data transkribatu izan zaio, liburu honetan 12.4. atalean jakinarazi dugunez. Atal horretan zehaztu ditugu agiriak bere testuaren baitan duen informazioa, baina hamar urte lehenago, 1462-XII-3an, Zestoan Batzar Nagusiak bildu ziren ez dugu baieztatu ahal izan. Argi eta garbi frogatuta dago, ordea, 1472ko udazkenean Zestoan Gipuzkoako Batzar Nagusiak bildu zirena.

Zumaiako plaza nagusian hiribilduko Kontzejua bildu zen 1472-XII-27an. Bertako eskribauak, Martin Diaz Mirubikoak, aurreko urtean (1471-XI-19an) Zumaiako prokuradoreek Debako Kontzejuarekin Otabartza eta Uraingo lurrei buruz egindako itunaren

berri eman zuen, eta Kontzejuak onartu egin zuen. Lekuko izan ziren Jofre Sasiola, Joan Santxez Zumaiakoa eskribaua, Lope Oikia eta Joan Ruiz Arteagakoa zumaiarrak<sup>11</sup>. Martin Diaz Mirubikoa eskribau hau, gure ustez, 1466. urtean Alfontso infante-erregearengandik errege-ganberako eskribau-titulua jaso zuena da. Alfontso infantea hila zenez gero, errege-ganberak utzi eta Zumaiari zebilen eskribau.

1472-VII-1ean Konstantza Aiarak, Oñatiko Iñigo Belez Gebarakoaren amak, testamentua egin zuen Burgosko Ameyugo herrian, Miranda de Ebroren ondokoa<sup>12</sup>. Hilabete batzuk lehenago, 1472-II-17an, Gaztelako Enrike IV.a erregeak, ordea, Iñigo Belez kendu egin zion Gipuzkoa, Bizkaia, Araba, Errioxa eta Enkartzioetako kapitain jeneral titulua<sup>13</sup>.

Nafarroan, Leonor printzesaren senar Gaston, Foixko kondea, hil egin zen Orreagan 1472-VII-10ean. Hil bezperan egindako testamentuan Frantzisko Febo biloba izendatu zuen oinordeko unibertsal<sup>9</sup>.

## 15.3. 1473. URTEA

### 15.3.1. Usarraga eta foru-baimena, balearen banaketa, etab.

1473-X-26an Bidaniko Usarragan bildu ziren Gipuzkoako Batzar Bereziak. Bertara ez ziren agertu Azpeitia, Azkoitia, Elgoibar, Bergara eta Arrasateko prokuradoreak. Enrike IV.a erregeak azaroaren 24an Toledon egindako zedulan aipatzen da Batzar haiek egin zirela.

Hurrengo hilean, 1473-XI-10ean, berriz elkartu ziren Usarragan Gipuzkoako prokuradoreak. Gipuzkoari zegozkion agiriek foru-baimena izatearen premia aztertu zuten Batzar Berezi haietan. Hil beraren 27an erregeak Toledon idatzitako agirian dioenez, Domengon Gonzalezek sinatutako eskea jaso zuen, bertan Usarragako Batzarretan onartutako ordenantzen berri emanez. Honako bost ordenantza hauek ziren:

1. Probintziak ez zuen onartuko inongo Jaunek edo Ahaide Nagusik Probintziako hiribildurik mendean hartzea. Horren aurka, behar izanez gero, gerra-deia egingo zuten.
2. Inongo Jaunek edo Ahaide Nagusik auzotarren bat preso hartu edo setiatu egiten baldin bazuen, askatzeko gerrarako dei egingo zuten.
3. Edozein auzotar hiltzeagatik edo presoren bat askatzeagatik mendeku hartuko zen, eta horretan saiatzen zirenak babestu egingo zituen Probintziak.
4. Edozein Jaun, pertsona arrotz edo Ahaide Nagusiri Batzarren aurrean erregearen gutun eta agiriak aurkeztea exijituko zitzaion. Halaber, edozein

meriok edo betearazlek Probintziak zituen Foruei aurka egiten bazien, eragotzi egingo zitzaion, eta, azken erremedio gisa, hil ere egingo zuten, eta Probintziak hiltzaileak babestu egingo zituen.

5. Probintziaren aginduak hiribildu, unibertsitate edo Ahaide Nagusiek betetzen ez bazituzten, Batzarrek jurisdikzioa izango zuten bederatzi egunez, prozedura laburraz, auziak ebazteko. Errudunei sagastiak, mahastiak eta ondasunak moztu ahal izango zizkieten. Probintziaren mezulariak zauritzen zituztenei heriotza-zigorra ezarriko zieten, eta legegabeen liburuetan idatzita geratuko ziren<sup>1</sup>.

Gai garrantzitsua zen Gipuzkoako Probintziarentzat agiriei foru-baimena ematea, bete behar ziren ala ez Batzarrek erabaki zezaten. Erregeak onartu egin zuen Probintziak foru-baimena izatea. Harrezkero errege-agiriei atzean idatzita ipintzen zieten Batzarretan noiz irakurri ziren eta Batzarrek noiz onartu zituzten<sup>2</sup>.

Usarragan onartutako eta lehentxeago aipatu dugun lehen ordenantzak Gipuzkoan azken urteetan zegoen susmoa edo beldurra adierazten dute: alegia, erregeak Probintzia beste jaunen bati salduko ote

zion. Pedro Fernandez Belaskokoa (Haroko kondea), Guienako Karlos dukea edo besteren bat izan zitekeen eroslea. Ez zen, ordea, horrelakorik gertatu<sup>14</sup>.

1473. urtean Gipuzkoako merio nagusi Gartzia Lopez Aiarakoa izan zen. Gartzia Lopez berari kendu zion erregeak kargu hori 1464an, traizio egin ziolako eta Alfontso infantearen alde egin zuelako. Oiartzungo Feloagako gaztelua hartu eta gaizkile gisa bizi izan zen merkatariei lapurreta eginez. Ermandadeak eskatuta, erregeak baimena eman zuen Gartzia Lopez erregearen mendera etor zedin<sup>15</sup>.

Iñigo Belez Gebarakoak, Oñatiko jaunak, bestalde, 1473-III-10ean hirugarren aldiz ezkontzeko kontratua egin zuen. Joana Manrique zen emaztegaia, Diego Gomez Manrique edo Trebiñuko kondearen alaba<sup>13</sup>.

Trebiñuko kondea ganboatarren buru zen, eta Bizkaian Gaztelako Isabel eta Aragoiko Fernando senar-emazteen alde agertu zen. Hauek Ingalaterraren aldeko eta Frantziaren aurkako ziren, eta Bizkaia eta Gipuzkoa bereganatzen saiatu zen alde bakoitza, bertako itsasontziak gerrarako oso baliagarriak izango zirelakoan<sup>16</sup>.



15.3. irudia.  
Getariako portua.

Itsasontzi haietako batzuk balea harrapatzen ibiltzen ziren, eta Getarian, adibidez, beren arauak zituzten harrapatutako balearen banaketa egiteko. 1473. urtean (edo hurrengoan) harrapatutako balea honela banatzea erabaki zuten: balea arpoiz lehenbizi zauritzen zuenak bost kintal haragi hartuko zituen; hurrengo bost zaurigi-

leek kintal bana, balea lehenbizi ikusi eta dei egiten zuenak beste kintal bat; balea odolusteko xabalinaz jotzen zuen bakoitzak bosna libra. Horiek guztiak kenduta, eta eskubideak eta zergei zegokiena alde batera utzita, geratzen zena erdibana hartuko zuten Kontzejuak eta balea harrapatzen ibilitako marinelek<sup>17</sup>.

## 15.4. 1474. URTEA

### 15.4.1. Ituna ingelesekin, Etorrako sarioa, Gaztelako gerra zibila, etab.

1474-I-11/13 bitartean Usarraga inguruan Gipuzkoako Batzar Bereziak ospatu ziren. Joan Ruiz Leitzarangoaren etxea izan zen bilgunea<sup>18</sup>. Gure ustez oraingo Elizaran baserria izan daiteke urte hartan Gipuzkoako prokuradoreak hartu zituena. Batzar haietan erregearen 1473-XII-24ko agiria irakurri zuten, eta osorik betetzea izan zen batzartuen erabakia. Iñigo Santxez Urbinakoaren heriotzaz Kalagorriko apezpikutegiak emandako epaia ere irakurri zuten<sup>18</sup>. Arrasateko auzotarrek egindako eskabidea ez zen ontzat hartu.

1474-I-15ean Zestoako Domenja Lilik, Sirakusako gobernadore Enrike Liliren arrebak, ahalordea eman zion Joan Domingo Areitzaga prokuradoreari Siziliara joan eta Sirakusan anaiarengandik dohaintza eta ondasunak haren izenean jaso zitzaizkien (ikus [XV. m. 37] agiria). Joan Domingok jasoko eta erabiliko zituen, Domenjaren izenean, Enrike Lili anaiak emandako titulu eta ondasunak. Agiria Joan Ibañeta eskribauak idatzi zuen, eta lekuko hauek izan ziren: Domingo Agirre, Martin Lizaso eta Lazaro Zelaia zestoarrak.

Agirian ez da esaten Domenja Lili ezkondu zegoenik, eta baliteke Joan Perez Idiakaizkoarekin geroago ezkondu izana. Anaia Martin Diaz, Liliko jauna, dirudienez hila zen 1474. urterako, baina 1479. urtean, Zestoan lekuko gisa azaltzen da Martin Diaz Lilikoa (ikus [XV. m. 46] agiria). Agian Domenjaren beste senideren bat izango zen 1479. urtekoa. Bestalde, Joan Domingo Areitzaga prokuradorea aipatzen da 1474ko agirian. Areitzaga hori, gure ustez, Arroa-

koa zen; izan ere, hiru baserri daude Areitzaga izenekoa Arroakolatik gertu: Areitzagagoiena (orain "Aritza" soilik esaten duguna), Areitzaga Zelaia (orain "Zelaikoa" deitutakoa) eta Areitzaga Joan Domingo ("Joan Domingo" esaten duguna eta, gure ustez, izena agiriko prokuradoretik datorrena). Agirian lekukoetako bat Lazaro Zelaia da, zestoarra. Pentsa liteke Areitzagazelaia etxekoa zela, baina orduan Debako jurisdikziopean zegoen etxe hori, eta Zestoan Akoan ere bada Zelaia etxea.

Gipuzkoan urte hartan, 1474. urtean, Azpeitian bildu ziren Batzar Nagusiak. Gero baita Zarautzen ere, non Arrasate aldeko guraiatarren eta Leinzkoen arteko desadostasunak aztertu baitziren<sup>3</sup>.

1470-XI-20an Getarian Kontzejua bildu zen Lope Ibañez Errekondokoa eskribaua bertan zela. Balea harrapatzen zutenek hiribilduari balearen erdia ematea erabaki zuten, haren balioaz herriko portu, kaiak eta harresiak konpon zitzaizkien. Joan Ibañez Izetakoa eta Joan Martinez Amilibikoa ziren herriko alkateak (biak).

Egun berean, erabaki hori hartu ondoren, Getaria-ko marinel-kofradia ustez sortu berriaren Ordenantzak aurkeztu ziren aipatutako alkateen eta eskribauaren aurrean. Dena den, 1478-XI-28an Getariako Kontzejuko 128 auzotarrek uko egin zioten, Lope Ibañez Errekondokoa eskribauaren agiriaren bidez, ordura arte bezala Donostiako probestuari urteko lehen balearen erdia emateari. Auzotar horien izendeiturak ikusita, garbi dago batzuk jatorriz familia zestoarrekoak zirena. Gure ustez hauek dira aipaga-

15.4. irudia. Lili jauregia.  
(Indalezio Oiangurenen  
argazkia).



rrienak: Domingo Zestona, Paskual Apategi, Anton Arrona, Beltran Arrona, Martin Joan Arrona, Pedro Iraeta, Martin Pagino, Joan Martinez Sorazabalgua, Pedro Martinez Amilibikoa, Joan Perez Amilibikoa, Beltran Amilibia, Martin Amilibia, Pedro Indo, Joan Indo eta Beltran Altzolarats. Martin Joan Arrona ontzi-maisu izateaz gain prokuradore ere bazen. Anton Arrona urte batzuk geroago, 1500. urte inguruan, Getariako aberatsena zen. Joan Martinez Amilibikoa alkate eta eskribau zen. Baliteke Martin Amilibiaren aita izatea<sup>17</sup>.

1474-IX-26an Bizkaiak ituna egin zuen Ingalaterrarekin, eta bertan nabigaziorako eta merkataritzarako askatasuna eta segurtasuna bermatu nahi zituzten. Bizkaiak bere prokuradoreak Debara bidali zituen, eta, bertan, Pedro Otxoa Iribekoaren etxean, Juan Irrazabalen aurrean elkartu ziren enbaxadore ingelese-

kin. Martin Santxez Zumeltzukoa bilbotarra, Martin Ibañez Urkizukoa lekeitiarra eta Fortun Ibañez Albizkkoa, erregearen basailua, ziren Bizkaiko prokuradoreak. Guilen Pykinhan maisua eta Bernart de la Forja, berriz, Ingalaterrako erregearen enbaxadoreak<sup>16</sup>.

1474-XI-4an Loiolako jaun Beltran Ibañez Oñazkoak Zestoako hiribilduari Etorrako saroia saldu zion. Saroia Zestoako jurisdikzioan zegoen. Saroian zeukan guztia sartu zen salmentan, bide eta guzti, 62.500 maraitan. Marai bakoitzak Gaztelako bi sos (blanca) balio zituen. Zestoako Kontzejuaren izenean Martin Aspee fiela joan zen salerosketa-kontratua egitera. Agiri hark zioenaren aurka ez joateko bermeak eman zituen Loiolako jaunak. Hala ere, Etorrako saroiaren salmentan ez ziren sartu saroi barruan zeuden bi zati. Bata Beltran Ibañez Oñazkoaren aitona Zestoako Pedro Urbietari saldu zion sagastia zen

(sagastia Zestoako jurisdikzioan zegoen), eta bestea Gallaingo (oraingo Gallariko) baserria bere ondasunekin, zeina, Etorrako saroiaren barrukoa izanik, Azpeitiko jurisdikzioan baitzegoen.

Salerosketa-agiria Valluyn-en sinatu zen (gure ustez Gallain edo oraingo Gallarin). Lekuko izan ziren Joan Martinez Olaberrietakoa eta Joan Perez Otalorakoa eskribau azpeitiarrak, Beltran Ibañez Loiolakoa (zaharra) azpeitiarra, eta Joan Martinez Ibañetakoa eta Joan Martinez Zabalakoa zestoarrak, etab. Joan Lopez Amilibikoa eta Lope Gonzalez Ugartekoa eskribauek idatzi zuten agiria. Ondoren, Beltran Ibañez Oñazkoak zin egin zuen kontratu hura errespetatu egingo zuela (ikus [XV. m. 38] agiria).

Etorrako saroiak haustarritza Beroaran baserria eta Aiakelu artean zuen. Agiriak ez du esaten zenbateko saroi zen, baina haustarritza non zegoen ikusita, Gallari baserria barne hartzen zuela eta lekuaren altitudea kontuan izanik, hamabi gorabileko erradiokoa zela esan daiteke.

1474. urtean Joan Perez Loiolakoaren izen-deitura bereko sasiko semea, apaiza, Azpeitiko Soreasuko elizako Martin Antxieta erretorearen semeak eta ilobak

hil egin zuten. Loiolatarren justiziak Joan Perez abadearen hiltzailea harrapatu eta hil egin zuen. Martin Antxietak, berriz, bere semeekin (tartean Pedro Gartzia Antxietakoa zela) Getaria aldera ihes egin zuen.

Martin Antxietaoren ordean Martin Oñatz izendatu zuten erretore, herriko apaizak eta hiribilduko Kontzejua ados zirela. Beltran Ibañez Oñazkoak (Loiolako jaun gazteak) itun ekonomikoa sinatu zuen erretore berriarekin. Soreasuko Sebastian donearen elizan erretorea, zortzi benefiziadu eta bi kapilau izango ziren. Erretoreak hamarrenen laurdena eta aldare-oineko opalkuntzen hiru laurdenen zati bat gehiago izango zuen. Horrez gain, erretoretzaren eskubideak eta benefiziaduen eskubideen hiru laurdenak jasoko zituen<sup>20</sup>.

1474-XII-18an, Isabel andreak, Gaztelako Enrike IV.aren arrebak, erregea hil egin zela jakinarazi zion Probintziari<sup>1</sup>. Orduan Gaztelako erreinuan gerra zibila hasi zen. Batzuek Enrike errege zenaren alaba Joana *Beltranejaren* alde egin zuten, eta besteek Isabel arrebaren alde. Bost urte iraun zuen gerra zibil hark<sup>21</sup>. Ahaide Nagusiek Isabelen alde egin zuten gerra hartan. Beltran Ibañez Loiolako jauna, adibidez, Burgos eta Zamorako Toro defendatzen ibili zen<sup>22</sup>.



15.5. irudia.  
Etorrako saroiaren "Austarritza" izeneko lekua Beroaran ondoan.

## 15.5. 1475. URTEA

## 15.5.1. Batzarrak eta igorpen-alkatea

1475-I-2/14 bitartean ospatu ziren Azkotiko Basarten Gipuzkoako Batzar Bereziak. Bertan Gaztelako erreginak bidalitako enbaxadoreak (Bartolome Zuluaga eta Anton Baena) eta haren gutunak onartu egin zituzten. Isabel erreginak Gipuzkoak zituen foru eta pribilegioak onartu egin zituen, eta Probintziak Isabel onartu zuen Gaztelako oinordekotzat. Batzar haietan denek Isabel erreginatzat onartu arren, bi talde zeudela esan daiteke. Batetik Elgoibar eta Azkoitia, Martin Ruiz Olasokoa, Gartzia Alvarez Isasagakoa, Beltran Ibañez Loiolakoa, Joan Beltran III.a Iraeta, Joan Ortiz Zarauzkoa eta semea, Lope Gartzia Gabiriakoa eta Joan Perez Ozaetakoa zeuden, eta bestetik gainerako hiribildu guztiak<sup>1</sup>.

Basarteko Batzar Berezi haietan Gipuzkoako hiribildu eta Alkatetzetako prokuradoreekin batera Ahai-de Nagusiak ere elkartu ziren. Honako hauek, hain zuzen: Martin Ruiz Olasokoa, Gartzia Alvarez Isasagakoa (Joan Lopez Lazkanokoaren izenean), Joan Gartzia Baldakoa, Beltran Loiola (Beltran Ibañez Oñazkoa), Joan Beltran III.a Iraeta, Joan Ortiz Zarauzkoa Fortun semearekin, Lope Gartzia Gabiriakoa eta Joan Perez Ozetakoa<sup>23</sup>.

Urte hartan Gaztelan gerra zibila sortu zen. Frantziak eta Portugalak Joana *Beltraneja* sostengatzen

zuten, eta gipuzkoarrak Isabelen alde atera ziren. Toro, Burgos eta Hondarribia defendatzen parte hartu zuten. Ez dakigu, ordea, Joan Beltran III.a Iraetakoak borroka haietan parte hartu zuen.

Borroka haien garaian Fernando *Katolikoa*, Isabel erreginaren senarra eta Aragoiko printzea, ehizara joan omen zen, eta handik itzultzen ez zela eta, gipuzkoarrak asaldatu egin omen ziren. Haren bila irten eta basoan aurkitu omen zuten. Honako bertso hau ipini omen zioten: “Gure errege jauna/ billatu degu basoan,/ goizean eizera joana./ Pozkida bete osoan/ berak dituelako ikusi/ batzuk il eta besteak bizi/ portuguesak amilka igesi.”<sup>24</sup>.

Gero, 1475-VI-10ean, Isabelen senar Fernandok onetsi egin zituen Gipuzkoak zituen Foru, pribilegio, usadio eta ohiturak<sup>4</sup>.

1475. urtean Gipuzkoako merio nagusi Gartzia Lopez Aiarakoa zen, eta ordezkoko Joan Migelez Ituritzakoa<sup>15</sup>.

Gero, 1475eko apirilaren 22an Azkoitian bildu ziren Probintziako Batzar Nagusiak. Beste Batzar Berezi batzuk Usarragan bildu ziren 1475ean abendu baina lehen, eta bertan errege-erreginei Igorpen-alkatetza Gipuzkoako Probintziaren esku uztea eskatu zieten<sup>3</sup>. 1475-XII-23an Valladoliden idatzitako



15.6. irudia. Azkoitiko Basarteko Batzarren oroigarria.

errege-zedulak eman zion Igorpen-alkatetza Probintziari<sup>4</sup>.

Erregeek beren erreinuetako mugetan igorpen-alkateak izendatzen zituzten. Alkate haiek zaintzen zituzten merkataritzako gaien joan-etorriak. Debekatutako gaiak erreinutik ateratzen ez zuten utzi behar. Gainera, gaiak ezarritako bideetatik eraman behar ziren. Horrela erreinuko aberastasunari (batez ere metal preziatuetan neurtzen zen) ez zitzaion ihes egiten uzten, eta elikagaiak babestu egiten ziren. Lurraldea militarki babesteko gaiak ere (armak, bolbora, zaldiak, etab.) zaintzen ziren.

Gipuzkoan ez zegoen barne-aduanarik itsasoko hamarrenak kobratzeko, baina Gaztelako erreinuaren muturrean zegoenez gero, itsasoz (portuetatik) eta lehorrez (Behobiatik) erreinu arrotzetara igortzen ziren gaiak kontrolatu beharra zegoen. Nafarroatik Gaztelara Segura, Tolosa, Ataun eta Gasteiztik joaten ziren gaiak ere kontrolatu egin behar ziren. Hain

zuzen Gipuzkoan bertan kontsumitzeko ez ziren gaiak beren zergak ordaindu behar zituzten.

Gipuzkoan Igorpen-alkatetzaren ardura Probintziak hartu zuen, eta ez erregeak izendaturiko inork. Domenjon Gonzalez Andiakoa zen igorpen-alkatea, baina hark Probintziaren esku utzi zuen kargua. Hala ere, Probintziak zioenez, 1475. urtea baino lehen Gipuzkoan ez zen inoiz erregeak izendatutako igorpen-alkaterik izan<sup>25</sup>.

### **15.5.2. Enrike Liliren dohaintza, Etorrako sarioa, etab.**

1475-III-20an Sirakusako hirian Enrike Lili eta Joan Domingo Areitzaga (Domenja Liliren prokuradorea) bildu ziren. Joan Domingo Areitzagak aurreko urtean jaso zuen Domenja Liliengandik Enrike anaiaren dohaintza Sirakusan bereganatzeko ahalordea (ikus [XV. m. 37] agiria). Enrike Lili eta Hurtado Mendozakoa, Liliko jauregiko jauna, Siziliako Alacha hiri-



15.7. irudia. Zestoako Areitzaga Joan Domingo baserria.

bilduko konde eta Sirakusako eta Valdenotoko gobernadore zen. Martin Diaz Lilikoa anaia zaharra, dena den, badirudi hila zela. Joan Domingo Areitzaga Domenja Lilik (Enrikeren arrebak) aurreko urtean emandako pribilegioaz aurkeztu zen.

Landa Maisu Jeneral Enrike Lilik zioenez, osasunez oso gaixo zegoen eta legezko oinordekorik ez zuen. Familiar Domenja Lili arreba besterik ez zuen, eta, ondorioz, ondasun guztien “inter vivos”ko dohaintza egin zion. Liliko jauregia bere ondasun eta eskubide guztiekin eta Alachako konderrria eman zizkion. Konderrria 1466-V-10ean Messinan orduan Siziliako errege eta Aragoiko printze zen Fernando II.ak eman zion. Enrike Liliren borondatez, Alachako konderrria beti Liliko etxeari lotuta mantenduko zen, eta inola ere ezingo zen saldu, trukatu edota hipotekatu. Egun hartatik aurrera Domenjak gozatuko zituen Liliko maiorazko eta etxeko zein Alachako konderrriko errentak eta etekinak. Domenja arrebari eta honen Joan Domingo Areitzaga prokuradoreari ahalordea eman zien zuzenbidez dohaintzan emandako ondasun guztiak beregana zitzaten. Adierazi beharra dago XVI. mendeko agirietan Alachako konderririk ez dela aipatzen.

Enrike Liliren ondasunak urrezko 500 soserainokoa ziren gehienez, baina, gehiago baldin baziren, arreba eta honen prokuradorea gai izango ziren ahalmena zuen epailearen aurrean aurkezteko. Enrikek zin egin zuen dohaintza hura ez zuela inoiz deuseztatuko.

Sirakusan dohaintza-agiria egiten ari zirela, bertan zegoen Joan Domingo Areitzagak onartu eta jaso egin zuen hantxe dohaintza, bertan idatzitako baldintza guztiekin. Luis Urso eskribauak egin zuen agiria, eta lekuko hauek izan ziren: Joan Sufulfo, Sebastian Femistera eta Antonio Picholi.

Hamar egun geroago, 1475-III-30ean, Martin Chafali eta Antonio Virsili eskribauek ziurtatu egin zuten Luis Urso eskribauak idatzitako dohaintza-agiria (ikus [XV. m. 39] agiria).

Argi eta garbi dago 1475. urtean Liliko jabe eta

oinordeko bakar Domenja arreba zela. Ez dakigu noiz ezkondu zen Joan Perez Idiakaizkoarekin, baina urte hartako (eta aurreko) agirietan ez da senarririk aipatzen. Azkoitian, ordea, Martin Perez Idiakaizkoa auzitan zebilen bertako Kontzejuarekin Martirietako bere Otsalarre baserrian bidea egin ziotelako<sup>26</sup>. Gai bera zela eta, Martin Epelde ere auzitara eraman zuen Martin Perez Idiakaizkoa azkoitiarrak<sup>27</sup>. Gure ustez Domenja Liliren senar izan zen Joan Perez Idiakaizkoa Martin Perez honen senide zen.

1475-III-20an, Loiolako jaun Beltran Ibañez Oñazkoak zioenez, Zestoako hiribilduak mila berrehun eta berrogeita hamar florin zor zizkion Lope Gonzalez Ugartekoa eta Joan Lopez Amilibikoa eskribauen aurrean egindako salmentagatik. Beltran jaunak Lope Otxoa Iraetakori, Azpeitiko auzotarrari, ahalordea eman zion prokuradore gisa diru haiek kobra zitzan eta hiribilduari ordainagiria eman ziezaion. Lekuko izan ziren Martin Antxieta bere morroi Txartiko Lasarekin eta Pedro Idiakaitz, denak ere Azpeitiko auzotarrak. Lope Gonzalez Ugartekoa eskribauak idatzi zuen agiria (ikus [XV. m. 40] agiria).

Hurrengo egunean, 1475-III-21ean, Loiolako jaun Beltran Ibañez Oñazkoaren ahalordea zuen Lope Otxoa Iraetakoak ordainagiria eman zien Zestoako hiribilduko alkate, probestu, ofizial eta abarri. Ordainagiria 1.250 florinekoa zen (florin bakoitzak Gaztelako ehun sos zuri balio zituen eta sos zuri bakoitzak hiru kornadu), hau da, 62.500 maraiko; izan ere, Gaztelako bi sos zurik marai bat balio zuten. Zestoak Loiolako jaunari Etorrako saroia erosi zion, eta Lope Otxoak eta Beltran jaunak 1.250 florin edo 62.500 marai jasotzen. Saroiaren salerosketa-agiria Lope Gonzalez Ugartekoa eta Joan Lopez Amilibikoa eskribauen aurrean egina zuten aurreko urtean. Lope Otxoa Iraetakoak ordainagiri haren aurka ez joateko bermeak eman zituen Azpeitiko parteko Gallain edo Gallarin.

Lekuko hauek izan ziren: San Joan Areiztizabal, Joan Etxenagusia (azpeitiarrak), Martin Gartzia Lasakoa, Pedro Arretxe, Joan Mateo Arretxe (zestoarrak) eta Joan Mantzizidor (zumaiarra). Joan Lopez Amili-

bikoa eta Lope Gonzalez Ugartekoa eskribauek idatzi zuten agiria (ikus [XV. m. 41] agiria).

Getarian 1475. urtean nabigazio eta merkataritzan zenbait pertsona nabarmendu ziren. Horietako bat Lope Martinez Zarauzkoa zen, erregearen basailu eta itsas pilotua. Eskribau ere bazen, eta Getarian alkate ere izendatu zuten. Gero Bedamako burdinola zela medio, Zestoako Kontzejuarekin auzia izan zuen. Gainera, urte hartarako Getariako marinelen kofradiaren Ordenantzak idatzita zeuden. Joan Martinez Amilibikoa eta Joan Izeta alkate zirela egin ziren Ordenantza haiek, eta lekuko izan zen, besteak beste, Beltran Gartzia Iraetakoa<sup>17</sup>.

Erroman Sixto IV.a aita santuak Alfonso Carrillo jauna (Toledoko artzapezpikuaren iloba) izendatu zuen Iruñeko apezpiku. Gainera Erroman, 1475eko udan, Zesar Borgia jaio zen, gero Iruñeko apezpiku izendatuko zutena. Rodrigo Borgia kardinalaren eta Vannoza Catanei andrearen semea zen<sup>8</sup>. Aita Rodrigo Borgia gero Alexandro VI.a aita santua izango zen, eta jatorriz Gipuzkoako familia batekoa zen.

15.8. irudia. Gallain, Gallari edo Gallegiko etxe berria.



## 15.6. 1476. URTEA

### 15.6.1. Kortsarioak, Batzarrak, eta Hondarribiko setioa

1476-II-19an Debako auzotar zen Joan Alos Amilibikoa ontzi-maisuak Gaztelako Isabel erreginaren aseguru jaso zuen, honek Tordesillasen egindako gutunaren bidez. Joan Alosi Portugalgo etsaiari aurka egitera biltzen zitzaizkionek ere izango zuten aseguru. Bi itsasontzi, edo gehiago, armatuko zituen Ami-

libikoak Portugalgo eta Frantziako etsaiei aurka egiteko. Gaztelako gerra zibilean, izan ere, Portugal eta Frantzia Joana *Beltranejaren* alde atera ziren<sup>28</sup>.

Bi hilabete geroago, 1476-IV-10ean, Gaztelako Isabel eta Fernando errege-erreginek Madrigal hiribildutik Gipuzkoa (Debako Kontzeju) eta Bizkaiko agintariei agindua eman zieten, “Mayorgas” edo Mallorca hiriko Pedro Joan Barreraren Alfonso Revi-

Ila prokuradorearen eskariz, Joan Alos Amilibikoa debarrak ekarritako karabela armatua bahi zezaten. Karabela eta bertako gaiak Joan Alosek bi hilabete eta erdi inguru lehenago lapurtu egin zituela dio, eta jabeari itzul ziezazkiotela<sup>29</sup>.

1476-VIII-8an Tordesillasen Gaztelako Isabel erregina eta Aragoiko Fernando printzea senar-emazteek gutuna idatzi zuten Joan Alos Amilibikoa debarraren argibideak onar zitzaten, Joan Barreraren karabela hartu zuelako auzia baitzuen<sup>30</sup>.

Urte hartan bertan, 1476an, Fernando eta Isabelen beste gutun bat bidali zieten Gipuzkoako agintariei. Joan Alos Amilibikoak zioenez, hark Deban bahituta-ko karabelak adina balio zuten ondasunak zituen, eta, karabela aske uzten baldin bazioten, portugaldarrei itsasoan aurka egin ahal izango zien. Joan Alosek fidatzaileak eman beharko zituen berme gisa<sup>31</sup>.

Hilabete batzuk lehenago, 1476-VI-15ean, Fernandok agindua eman zien Errege-kontseiluko Lillo doktoreari eta Alvaro Nava eta mosen Boscan kapitainei Zumaiako Domingo Santxez Akuakoari (*Zumaia* ontziko maisuari) hiru bat hilabete lehenago hartu zuten itsasontzi baten parte eman ziezaioten. Agiriak duen “Acua” forma erabili ordez, gure iritziz “Acoa” edo Akoa behar luke.

Joan Martinez Mendarokoa iloba zena zebilen itsasontzian, eta Cadiz aldean itsas armadarekin batera genoarren itsasontzia harrapatu zuten, portugaldarrentzat ziren salgaiekin. Bertako eskifaiak ihes egin zuten, lau emakume esklabo ontzian utzita. Garia, oihalak eta beste zenbait gai zituen. Gero Gibraltarko itsasartean bi itsasontzi portugaldar armaz kargaturik sumatu zituzten. Ondoan beste hiru itsasontzi portugaldar ere bazituzten. Joan Martinez Mendarokoa eraso egin zien, baina kanoikadaz hil egin zuten; baita



15.9. irudia. Debako itsasadarra.

haren lau lagun ere. Zauritu ugari izan zuten *Zumaia* itsasontzian. Gero itsas armadakoek portugaldarren ontziak erre egin zituzten.

Dena den, Domingo Santxezek Cadiz parean harrapatutako ontzitik zegokien zatia eskatu zuen. Erregeak, Gasteizen idatzitako agiriaz, hamabost eguneko epea eman zien deitutakoei Gortera azal zitezten<sup>32</sup>.

Itsasoan ekintza harrigarriak burututako bat, inor izatekotan, Joan Sebastian Elkano getariarra izan zen. Historialari guztiak bat ez badatoz ere, 1476an jaio zela diote<sup>17</sup>.

Gerra-giro hartan Gipuzkoako Probintziak bere Batzarrak egin zituen. 1476-IX-24an Usarragan Batzar Bereziak bilduta Probintziak baimena eman zion Eibarri herri-lurrak sal zitzaizkien<sup>18</sup>.

Batzar Nagusiak Bergaran bildu ziren, 1476ko urrian, eta geroxeago, abenduan, Hondarribian. Hondarribiko Batzar Nagusietan Errenteriarri eta Oiartzunni barkatu egin zieten sukaldeka Probintziari ordaindu beharrekoa, Frantziako Luis XI.a erregearen tropek bi herri horiek erre egin zituztelako<sup>1</sup>. Irun eta Arrasateri ere barkatu zieten 1476an sukaldeka ordaindu behar zutena.

Urte hartan, uztail-abuztuan, Palentziako Dueñasen Gaztelako Ermandadea sortu zen, eta Gipuzkoak bertan parte hartu zuen, Gasteizen 1476-VIII-31n emandako errege-agiriak agindutakoari jarraituz<sup>10</sup>. Badakigu 1476. urteaz gero Gipuzkoak Ahaldun Nagusia zuela, hau da, Probintziako diputatu guztien buru zena. Gainera Gaztelako Ermandadean gipuzkoarren ordezkaria bazen<sup>33</sup>.

1476 urtea odoltsua izan zen Gipuzkoarentzat. Gaztelako Isabel erreginaren alde atera zelako, Frantziako Luis XI.aren eta Portugalgo Alfontso V.aren tropen aurka jardun zuten. *Errege Katoliko*en indarrek Burgos, Toro eta Hondarribia defendatu behar izan zituzten. Frantziako erregeak 40.000 soldadu

bidali zituen Baionara, Hondarribia setiatzeko asmoz. Armand, Labritko jauna, zen haien buru. Gipuzkoara sartu eta Errenteria eta Oiartzun erre egin zituzten. Orduan Isabel erreginak Diego Perez Sarmiento, Salinasko kondea eta Gipuzkoako merio nagusia, bidali zuen zaldunekin. Joan Ganboa jauna ere bidali zuen Hondarribira, bertako kapitain izan zedin. Joan Ganboa Gipuzkoako mila soldadurekin sartu zen Hondarribira.

#### 15.10. irudia. Hondarribiko harresi eta portalea.



Errege frantsesaren tropa gehienak Gaskoniako jendez osaturik zeuden. Haietako bat mosen Joan Purgeta kapitaina zen, mila soldaduren burua. Irun-Urantzun Arantzate etxean zeudela, hiru mila gipuzkoarrek inguratu eta mosen Joan zegoen etxeari su emanda berrehun gizon hil omen ziren. Hondarribira Sancho del Campo kapitaina, Joan Lopez Lazkanokoa eta Joan Salazar zaldunak ere joan ziren, jende armatu eta artilleriarekin. Joan Lopez errege-erreginen Gortetik, lehenago, martxoaren 15ean abiatua zen. Hamar eguneko borroken ondoren, Frantziako erregearen tropak Baionara itzuli ziren. Frantziako erregearen tropak Oiartzundik eta Errenteriatik igaro ziren. Errenterian Joan Lopez Lazkanokoaren semea eta Martin Perez Altzegakoa preso hartu zituzten.

Hondarribia setiatzen bi hilabetez jardun zuten. Lope Isastik dioenez, Frantziako erregearen indarrak maiatzaren 6an sartu ziren Gipuzkoara. Maiatzaren 11n Hondarribia setiatzen hasi ziren, eta, bertan, hiribildu barruko eta kanpoko kapitain batzuk hil zituzten. Orduan Donostiako jendea itsasoz Hondarribira joan zen setiatuei laguntzera, eta frantsesen tropak erretiratu egin ziren. Setioak uztaila arte iraun zuen.

Gerra hartan Gipuzkoako Ahaide Nagusi hauek jardun zuten Gaztelako Isabel eta Fernando errege-erreginen alde: Joan Lopez Lazkanokoak, Beltran Ibañez Oñazkoak (Loiolako jaunak), Joan Lopez Ganboakoak, Pedro Gebarak eta Martin Perez Altzegakoak. *Errege Katolikoek* Madrilen 1476-IV-6an pribilegioak eman zizkioten Martin Ruiz Ganboakoari, Olasoko jaunari, Toro, Burgos eta Hondarribian egindako zerbitzuengatik<sup>20</sup>. Ez dakigu Joan Beltran III.a Iraetak parte hartu zuen ala ez.

### 15.6.2. Erregearen zina, Joan Lopez Lazkanokoa, Pedro Idiakaitz, etab.

1476an Donostiari Frantziako erregearen tropek eraso egin ziotelako, hiribilduko harresiak indartu egin zituzten, eta, laster, La Mota gaztelua eraiki zuten Urgull mendian<sup>34</sup>.

Gaztelako errege eta Aragoiko printze zen Fernando Euskal Herrira etorri zen gerra hura zela eta. Maiatzean Gasteizen zen, eta Arabako hiri horretan jakin zituen gerraren gorabeherak. Gipuzkoan, Hondarribiaz gain, Pasaia, Lezo, Irun, Hernani, Errenteria, Oiartzun eta Donostia kaltetu ziren. 1476ko uztailan Bizkaian zen. Larrabetzuko Emeterio eta Zeledonio martirien elizan Bizkaiko Foruak zaintzea zin egin zuen. Gernikan ere bai, 1476-VII-30ean, Andre Mariaren elizan, Bizkaiko eta erreinuko jende ospe-tsua inguruan zuela.

Fernandoren segizioan Alonso Carrillo etorri zen, Iruñeko apezpikua. Bizkaitarrek ez zuten ontzat hartu jaurren apezpikurik sartzea (Kalagorrikoak ere debekaturik zuen Bizkaira, bere elizbarrutiko lurretara, etortzea), eta erregeak gomendatuta, Bizkaitik joan egin zen Alonso Carrillo apezpikua.

Fernandok Bizkaiko ohiko beste lekuetan ere zin egin zuen Foruak gordeko zituela, eta, Bilbon zegoela, abuztuaren 14an hiribilduan juduak eta mairuak ez hartzeko agindua eman zuen, bertako biztanleen eskabidea onartuta<sup>16</sup>. Diotenez, bizkaitarrak haserre ziren, eta apezpikuak Bizkaitik joan zenean utzitako oinatzetako hautsa bildu eta itsasora bota zuten<sup>8</sup>.

Gerra hartan Hondarribia defendatzen nabarmendu zelako, Joan Lopez Lazkanokoari kanta hau atera zioten: “Juan de Lazcano beltzarana,/ Guipuzcoaco capitana,/ Franzez osteac jaquingo du/ Ura Ondarribian zana.”<sup>6</sup>.

Urtearen amaiera aldera, 1476-XI-28an, Zamorako Toro hirian Gaztela eta Aragoiko errege-erreginek haien morroi Pedro Idiakaitz jaunari mesede egin zioten. Zenbait burdinolari 1477-1480 denboraldian ordaintzea zegozkien zergak (alkabala, hamarren zaharra eta albala izenekoak) jasoko zituen. Hauek ziren delako burdinolak: Azpeitiko eta Azkoitiko jurisdikzioan zeudenak, Igartzaolea (Beasaingoa), Beltran Oñaz edo Loiolako jaunarena, Zestoako jurisdikzioan zeuden burdinolak eta Zestoa ondoan Deba-ko jurisdikzioan zegoen Lilikoa. Horiez gain, Bedua-

ko errenteriakoak ere jasoko zituen. Pedro Idiakaizte, guztira bildutakotik, lehendik finkatuta zeuden ondasun-sariak eta mesedez emandako kopuruak onuradunei ordainduko zizkien, eta gainerakoa Pedro Idiakaizte berarentzat izango zen (ikus [XV. m. 42] agiria).

Hil berean, 1476-XI-2an, Toro hirian Gaztelako Isabel eta Fernando errege-erreginek Pedro Idiakaizte jaunari gutuna idatzi zioten. Han ziotenez, Pedro Idiakaizte errege-erreginen morroia zen, Migel Perez

Idiakaizteko azkoitiarraren iloba. Osaba Migelek Azkoitiko Kontzejuari Otsalarreko lurra eta basoak erosi zizkion. Gero Migel Perezek lur haiek Martin Perez Idiakaizte anaiari (Pedroren aitari) saldu zizkion, eta Martin Perez aitak Pedro Idiakaizte semeari dohaintza eman zizkion. Otsalarreko dohaintza haren eskriturak baliozkotzat jotzea eskatzen zuen.

Errege-erreginek ziotenez, Pedro morroiak zerbitzu handiak egin zizkien, eta eskabidea ontzat hartu zuten<sup>35</sup>.

## 15.7. 1477. URTEA

### 15.7.1. Zumaiarra Kolonen aurka, eta Gipuzkoako Batzarrak

1477-III-2an, Gaztelako errege eta Aragoiko printze Fernandori eskabidea egin zion Lope Fernandez Zumaiakoak. Lehendik Fortun Santxez Iraetakoarenekin eta honen emazte Maria Ortiz Zarauzkoarekin kontratua egin zuen Iraeta etxeko mendi batzuetatik egurra ateratzeko. Horretarako epea zuen, baina epe horretan, erregearen aginduz, Frantziako erregearen agindupeko Kolon kapitainari aurka egiteko itsas armadara joan behar izan zuen. Ondorioz, ezin izan zituen Iraeta etxearen mendietako egurrak atera. Beraz, Fernando erregeari egurrak ateratzeko epea luza ziezaiola eskatu zion. Fernando erregeak lau hilabeteko epea eman zion egurrak atera zitzan (ikus [XV. m. 43] agiria).

Datu bitxia da Lope Fernandez zumaiarrak dioena; izan ere, Kolon kapitaina urte hartan Frantziako erregearen agindupean zebilen itsasoan Gaztelako indarrei aurka egiten. Gure iritziz, Kolon hau urte batzuk geroago Ameriketara iristea lortu zuena edo Bartolomeo anaia izan zitekeela pentsa liteke, baina seguruenik “Kolon zaharra” edo “Casenove” izeneko pirata frantsesa izango zen, *La Royal* itsasontzitik bere erasoak egiten zituena. Bestalde, argi eta garbi esaten da Iraetako jaun izandako Fortun Santxez 1477-III-

2rako hila zela. 1467-VI-27an artean bizi zen, zeren orduan elizetako patronatuen eskubideak Joan Beltran III.a Iraetakoaren esku utzi baitzituen (ikus [XV. m. 33] agiria).

1477. urtean Gipuzkoan Batzar Nagusiak Bergaran eta Mutrikun bildu ziren. Bergarakoak apirilaren 21etik maiatzaren 13a arte iraun zuten. Denboraldi laburrean Gipuzkoan ehun bat pertsona ospetsu hil zirela azpimarratu zuten<sup>18</sup>.

Errenteriako auziei buruz eskea egin zioten erregeari, Donostiak eta Oiartzunek izendatutako arbitro epaileen erabakia berrets zezan<sup>1</sup>.

Batzar haietara Oñati, Leintz Gatzaga eta Leintzko bailara aurkeztu ziren, Gaztela eta Leongo Ermandade Nagusiaren aginduei jarraituz, Gipuzkoako Ermandadeak kide gisa har zitzan. Horren aurka zeuden Gasteiz eta Arabako Ermandadea eta Oñatiko kondea, hau da, Iñigo Belez Gebarakoa. Hauek ziotenez, Oñati, Gatzaga eta Leintz Arabako Ermandadean zeuden jada. Gipuzkoako herri batzuk (Tolosa, Segura, Ordizia, Hernani, etab.) Oñati, Leintz eta Gatzaga barne hartzearen alde zeuden. Hondarribiak Gipuzkoan hartu nahi zituen, baina Oñati, Leintz eta Gatzagak nahi ez bazuten, gaia Gaztela eta Leongo Ermandadera itzuli behar



15.11. irudia. Iraetako "Granero" etxea.

zen, haiek erabaki zezaten. Arrasatek ez zituen Gipuzkoan hartu nahi.

Debako prokuradoreak zioenez, Oñati eta Iñigo Belez Gasteizekin ez ziren ondo konpontzen, eta gaia Gaztela eta Leongo Ermandadera itzuli behar zen. Mutriku, Getaria, Zestoa eta Elgoibarko prokuradoreek ere gauza bera jakinarazi zuten. Zarautzek eta Elgetak ez zituzten Gipuzkoan hartu nahi<sup>36</sup>.

Mutrikuko Batzar Nagusiak azaroan ospatu ziren<sup>18</sup>. Azaroaren 21ean onartu egin zuten Oñati, Gatzaga eta Leintz bailara Gipuzkoako Ermandadera sartzea<sup>1</sup>. Bestalde, Oiartzuni bost sukalderi zegozkion gastuak barkatzea erabaki zen.

Burgosen egindako Batzar Nagusian Arabarako diputatu nagusi Alonso Lopez Aiarakoa aukeratu zuten, eta Joan Lopez Errekaldekoa Gipuzkoako

diputatu nagusi. Beraz, pentsa liteke 1477. urtean Gipuzkoan diputatu edo ahaldun nagusi bat eta beste ahaldun batzuk bazeudela<sup>2</sup>.

1477. urtean Nafarroa eta Gipuzkoako muga zaintzen Joan Ribera, Montemayorko jauna, ibili zen<sup>21</sup>. Urte hartan Joan Sepulveda zen Gipuzkoako korrejidore, eta Martin Ibañez Nafarroakoa alkate nagusi<sup>15</sup>.

Urte berean, bestalde, Martin Gartzia Oñatz eta Loiolakoa jaio zen<sup>20</sup>.

### 15.7.2. Arroako ezkontza-kontratua, etab.

Aragoiko Fernando printzeak eta Gaztelako Isabel erreginak Gaztelako Joan II.a erregeak Zestoarentzat egindako pribilegio bat ikusi zuten pergaminoan, Valladoliden 1434-II-27an emandakoa, eta Zestoako Kontzejuak hura berrestea eskatu zien. 1477-III-

21ean Madrildik eskabideari baiezkoa eman zioten (ikus [XV. m. 44] agiria).

Bost hilabete geroago, 1477-VIII-23ean, Itziarko elizaren ondoan Anton Arrona eta Maria Gonzalez Mezetakoaren arteko ezkontza-kontratua egin zen. Anton senarraren aita Otxoa Martinez Arronakoa zen, eta ama Maria Gartzia Lasakoa. Maria Gonzalez emaztearen aita San Joan Fernandez Irarrazabalgoa zen, eta ama zena Katalina Martinez Aizarnakoa. Denak ere Debako auzotarrak ziren.

Kontratu hura egitera San Joan Fernandez Irarrazabalgoa (emaztearen aita) ez zen joan, baina haren ordeztuz bereko San Joan Fernandez Irarrazabalgoa (emaztearen anaia) zegoen. Otxoa Martinezek eta Maria Gartziak 350 kintal burdina eman zituzten semearentzat ezkontza hartan. Horrez gain, Arroako dorretxea (Arroakolakoa), bere burdinola, errota, errenta, mendi, sagasti, belardi, larre eta dorretxeari zegozkion gaineko ondasunak eman zituzten. Hala ere, ez ziren dohaintza hartan sartzen Arroako ibaitik (Arroaerrekatik) Ibañarrieta aldera zeuden lizarrak. Haietako Otxoa Martinez olagizonarentzat (aitarentzat) izango ziren; baita landatutako lizarrak eta Arroako ibaiaren ondoko mintegian zeudenak ere. Areitzagako etxeak erdibana izango ziren Otxoa Martinezenak alde batetik eta Anton semearenak eta honen emazte Maria Gonzalezenak bestetik; halaber Olaetako etxea bere ur korronte, errota eta gurgilak ipintzeko presekin, lur eta ondasunekin ere. Ibarrolatik gertu Otxoa Martinezek zeukan etxea bere lur eta ondasunekin Otxoa Martinezentzat izango zen (eta ez senar-emazte berrientzat). Tratua egitekotan zen Otxoa bere iloba Matxin Zarautzekin. Ibarrola ondoko etxea Matxinen etxeaz trukatu nahi zuen, eta truke-tratua egiten baldin bazuten, ondoren, etxe hura ere senar-emazte gazteentzat izango zen.

Ezkonberrientzat dote eta dohaintzan emandako ondasun haien guztien gozamina izango zuten Otxoa Martinez eta Maria Gartzia gurasoek. Senar-emazte zaharrek eta berriek elkarrekin bizitzeari uzten bazioten, aurrean aipatutako ondasunak erdibana izango ziren. Baita etxeko upelak eta ostilamendua ere.

Gurasoak hiltzen zirenean, senar-emazte gazteek ordainduko zituzten haien hiletak, urteurreneko elizkizunak eta zegozkien gainerakoak. Senar-emazte gazteetakoren bat hil eta legezko seme-alabarik uzten ez baldin bazuten, dohaintza hartako ondasun guztiak Otxoa Martinezen edo honen oinordekoen eskuetara itzuliko ziren. Gauza bera egingo zen San Joan Fernandez Irarrazabalgoak emandako ondasunekin, hau da, San Joan Fernandezen edo honen oinordekoen eskuetara itzuliko ziren.

Beste zenbait baldintza ere ezarri ondoren, Otxoa Martinezek fidatzaileak aurkeztu zituen: Pedro Areitzaga, Martin Akertza eta Lope Irure, hirurak ere debarrak eta hantxe bertan zeudenak.

San Joan Fernandez Irarrazabalgoak, bere arrebarren dote gisa, Otxoa Martinezzi 350 kintal burdina emango zizkion. 280 kintal Otxoa Martinezentzat izango ziren, honek ezkontzarako eman zituen ondasunengatik, eta Anton Arrona eta emazte Maria Gonzalezentzat 70 kintal burdina. Kintal horiek ordaintzeko epeak ere markatu zituzten. San Joan Fernandezen fidatzaileak ere hantxe ziren. Hauexek, hain zuzen: Fernando Migelez Zubeltzukoak, Pedro Joan Irarrazabal, Joan Gonzalez Mezetakoa (mutrikuarra) eta Joan Martinez Gilestegikoa.

Agiri haren lekuko honako hauek izan ziren: Joan Fernandez Irarrazabalgoa (Debako probestua), Martin Gonzalez Martzanakoa eta Joango Agote, "Belasko" goitzenekoa. Gartzia Martinez Idiakaizkoa eskribauak idatzi zuen agiria (ikus [XV. m. 45] agiria).

Kontratuan argi eta garbi ikusten da garai hartan burdina landua diru gisa erabiltzen zela. Material preziatua zen, eta agian txanponek baino balio-galera txikiagoa izango zuen. Arroakolako jaunek senideak zituzten Getarian ere. Hangoa ere familia aberatsa zen, nabigazioan eta merkataritzan nabarmendu zena. Anton Arrona 1474. urtean probestuari balea ez emateko agiriak dakarren getariarren zerrendan azaltzen da. Arroakolako Anton Arrona bera dela iruditzen zaigu, hau da, Otxoa Martinezen semea<sup>17</sup>.

1477ko urte hartan, bestalde, Iñigo Lopez Gebara-koak bultzatuta, Arabako Ermandadeko tropek Joan Lopez Lazkanokoaren gizonak hil egin zituzten Haraneko Kontrasta hiribilduan<sup>13</sup>.

1477. urtean Sixto IV.a aita santuak aginduta, Errodrigo Borgia kanzelariordea Erromatik Valentziara joan zen. Ahalmena zuen Tafallan Iruñeko apezpiku Nikolas Etxabarri hil zutenei eskumikua altxatzeko, baina errudunek zenbait baldintza bete behar zituzten. Lehenik eta behin, apezpikuari kendutako ondasunak

itzuli egin behar zizkioten Iruñeko elizari, eta zin egingo zuten berriz horrelakorik ez zutela egingo.

Gero, hiltzaileak eta laguntzaileak, esango zitzairen hiriko katedralera aurpegia estali gabe eta oinutsik alkandora eta galtzatan joango ziren, lepoan katea zintzilik zutela. Ondoz ondoko hiru igandetan joango ziren horrela ostatutik katedralera jenderik gehien zebilen orduan, kandela beltzak eskuan zituztela. Pierres Peral-tari lepoko katerik gabe joaten utzi zioten, baina gaine-rako penitentzia osorik bete zuen Valentzian<sup>8</sup>.



15.12. irudia.  
Arroerrekako  
Ibarrola.

## 15.8. 1478. URTEA

### 15.8.1. Batzarrak, jauntxoak, etab.

1478. urtean Gipuzkoako Batzar Nagusiak Tolosan (apirilean) eta Arrasaten (azaroan) bildu ziren. Tolo-sakoetan Azpeitiko eta Azkoitiko prokuradoreek Domenjon Gonzalez Andiakoaren aurka atera ziren<sup>18</sup>, hain zuzen honek Tolosan “hamarren zahar lehorra” kobratzen zuelako. Domenjonek eta Anton semeak muga-zergen zerrenda aurkeztu zuten<sup>1</sup>. Mandazain

batzuek eta Domenjonek arbitrajera jo zuten zergen auzia konpontzeko<sup>14</sup>. Batzar haietan Oiartzuni barkatu egin zitzaizkion gastuak ordaintzeko bost sukalderi zegokiena<sup>2</sup>.

Arrasateko azaroko Batzarretan kexa aurkeztu zen Orioko pasaia egiteko ontziak kobratzen zuen sariaz. Oier Enparan jaunarena (Astigarragako Murgia etxe-ko jaunarena) zen ibaiaren alde batetik bestera jendea

eramaten zuen ontzia<sup>18</sup>. Probintziak jauntxoari ez zizkion eskubide haiek onartzen, eta aurrerantzean auzitan ibili ziren<sup>14</sup>.

Urte hartan Gipuzkoako Probintzia kezkatuak zegoen Arabarekin lotzen zuten bidez. Bi sARBIDE nagusiak konpondu nahi izan zituen: Gasteiztik Gatzagarakoa eta San Adriango gotorlekukoa<sup>37</sup>.

1478. urtera arte Probintziako ahdun izatea garrantzitsua izan zen Ermandadea mantentzeko, herrietako erroldak betetzeko, Ermandadean sartu gabekoak zigortzeko eta abarretarako. 1478. urteko abuztuko Andre Mariaren egunera arte mantendu zen kargu hura<sup>33</sup>.

1478. urtean, aurrekoan bezala, Gipuzkoan Joan Sepulveda jauna izan zen korrejidore<sup>15</sup>.

Urte hartan Sevillatik uztailearen 10ean Mutrikuko hiribilduaren eskariz dei egin zitzaion Martin Ruiz Ganboakoari, baina ez dakigu aitari ala izen-deitura bereko semeari dei egin zioten. Uztaile hartantxe Joan Ganboa Baionan izan zen, Fernando eta Isabel errege-erreginek bidalita, Frantziako erreinuarekin bakea lortzeko elkarrizketetan. Bakea Donibane Lohizunen sinatu zen 1478-X-9an. Joan Ganboa Frantziako erreinuko mugako kapitaina zen, eta haren eskariz 1478-VII-7an errege-erreginek baimena eman zuten Anton Escalantek eta Donostia zein Hondarribiko beste zenbait auzotarrek Jerez de la Fronteratik 200 kaiz gari ekar zezaten<sup>20</sup>.

Zestoa, berriz, 14.7.1. atalean ikusia dugu Bedamako burdinola Bekolako jaunena zela, baina burdinolako zergak Joan Agirrek jasotzen zituen. 1478. urtean, ordea, zerga-eskubide haiek errege-pribilegioz Nikolas Gebararen esku geratu ziren<sup>38</sup>. Nikolas Gebara Pedro Gebararen semea zen, eta hau Segurako Larraztegi etxean ezkondu zen. Pedro Gebara, berriz, Iñigo Belez Gebarakoaren (Oñatiko jaunaren) sasiko semea zen<sup>13</sup>.

Azpeitian, bestalde, 1478. urtean zehar herri-

lurrak mugarritu eta zehaztu egin zituzten. Mugarritze hura jasotzeko agirietan, Azpeitiko biztanle gisa azaltzen dira jatorriz zestoar ziren hauek: Martin Martinez Lasakoa (Azpeitiko alkatea), Joan Beltran Iraeta, Martin Zubiaurre (Gallain baserrian), Maria Lopez Lasakoa, Pedro Lasao eta Migel Ezenarro (prokuradorea), besteak beste<sup>39</sup>. Garai hartan zenbait aberatsa Idibe reanbi he rritakoa uzotaz iren;Z estoakoa eta Azpeitikoa, edo Getariakoa eta Zestoakoa, adibidez.

### 15.8.2. Inkisizioa, eta itsasoko gorabeherak

Berez Inkisizioa ordura arte Erroman egon zen, Aita Santuaren aginduetara, baina 1478. urtean Fernando eta Isabel errege-erreginek eskatuta, beste Inkisizio bat sortu zen: Inkisizio espainiarra. XV. mendean judu asko bihurtu zen kristau, baina komenentziak (eta ez fedeak) eraginda; izan ere, kristau ez zenak ez zuen zenbait kargu eta ofiziotan jarduterik. Beraz, bataiatuak izan arren, gezurrezko kristau asko zegoen, eta jendeak judu haiei “zerri” (“marrano”) deitzen zien.

Alonso Ojeda eta Diego Merlo fraide domingotarrak eta Aita Santuaren Nicolo Franco nuntzioak Isabel erreginari biziki eskatu zioten elizjendez eta sekularrez osatutako auzitegia sor zezala, erlijioz judutar izan eta gezurrezko kristau zirenak zigortzeko.

*ErregeK atolikoek AitaS antuarie skeae ginz ioten auzitegi berezi hura sortzeko, eta Sixto IV.ak 1478-XI-lean sinatu zuen horretarako bulda. Inkisizio hura berria zen, eta inkisidoreak ez zituenA ita Santuak izendatzen, errege-erreginek baizik. Gezurrezko kristauak zigortu behar zituzten, baina ez bataiatu gabeko beste erlijioetakoak. Erromara apelazio asko egingo zirelakoan, auziak bizkortzearen Espainian ezarri zuten epaile gorenak: Inkisidore Nagusia. Hura izango zen auzietako azken maila. Gaztelako erreinuan lehen Inkisidore Nagusia Tomas Torquemada fraide domingotarra izan zen<sup>40</sup>. Auzitegi berezi, erlijioso eta zibil hura famatu egin zen, besteak beste, denboran zehar hainbat auzipeturi tortura izugarriak ezarri zizkiolako.*

Azkenaldian izandako hainbat borroka, gerra eta hondamenekin herriak pobretuta zeuden. Egoera hartan, 1478-III-20an Fernando eta Isabel errege-erreginek pragmatika atera zuten seiehun upel baino gehiagoko itsasontziak egiten zituztenei sariak aginduz. Ontzigintza sustatzeko neurri baliagarria izan zen<sup>16</sup>.

Itsasontziekin merkataritzan zebilen orduan, besteak beste, Getariako Joan Migelez Zarauzkoa. Ontzi-maisua zen, eta 1478an Joan Ortiz Untzetakoa getariarrarekin batera Andaluziatik Gipuzkoara garraiatzen ibili zen<sup>17</sup>.

Itsasoko gaiak zirela medio, arazotan zebilen Debako auzotar zen Joan Alos Amilibikoa. 1478-XII-2an Medina del Campo hiribilduan Errege-kontseiluak Joan Alos eta Pedro Joan Barreraren auziko epaia argitaratu zuen. 1476an hasi zen auzia, 15.6.1. atalean adierazia dugunez. Hala ere, 1478ko epaian historia osoaren laburpena ematen da.

Joan Alos Amilibikoa portugaldarren aurka gerra egiteraj oanz enb erei tsasontzian, e taM editerraneoan Berberriako kostatik gertu Pedro Joan Barrera Mallorcakoaren *Santa Maria* karraka edo karabelarekin topo egin zuten. Amilibikoa zioenez, Barreraren ontziak eraso egin zien mairuen laguntzaz, eta haren ontziko jendea zauritu. Orduan Joan Alosek karabela

hartu eta Debara ekarri zuen. Ontzia konpondu eta Portugalen aurkako gerrara joan nahi zuen.

Barrera jaunak auzitara jo zuen Kantzelaritzara, eta Joan Alosi ustez lapurtutako karabela bahitu egin zioten. Barrera jaunaren arabera, Eivissako itsasoan zenbait esklabo eta salgaiz bere *Santa Maria* ontzian zihoala Joan Alosek eraso eta jendea zauritu egin zuen. Ontzia bertako gaiekin lapurtu egin zion.

Joan Alosek bere ondasunak berme gisa bahituta zituela, ontziaren gaineko bahimendua altxatu eta armatu egin zuen gerrara joateko. Horretarako fidatzaileak ipini zituen. Auzitegiak, ordea, fidatzaileak libre utzi eta Joan Alosi Errege-kontseilura aurkezteko epea ipini zion. Han bi alderdiek beren frogak aurkeztu zituzten, eta, zenbait gorabeheraren buruan, azkenean epaiaren berri eman zuten. Barrerak ongi frogatu zituen bere arrazoiak, eta Joan Alosek ez. Beraz, ka rabelai tzulie gingoz itzaionB arreram allor-carrari. Karabelak Aragoiko urrezko 4.000 florin balio zituen. Bertan zihoazen hiru esklabo eta salgaiek (olioa, mundruna, etab.) Gaztelako Bandako ordenako 1.000 dobla urre balio zuten, eta Joan Alosek karabela lapurtu ondoren ontziak eman zitzakeen errentak 2.500 florinekoak ziren. Haiek denak eta auzian Barrera jaunak (eta oinordekoek) izandako gastuak ere Amilibia debarrak ordainduko zituen. 108.140 maraikoak ziren gastu haiek<sup>41</sup>.

## 15.9. 1479. URTEA

### 15.9.1. Zestoa urratsez urrats

Zestoako Kontzejua 1479-VII-11n Enekosauztegin bildu zen, ohi bezala. Joan Askatsua zen alkate, eta bertara gutxienez 80 herritar azaldu ziren. Han ziren Joan Beltran Iraeta (Iraetako jauna), Beltran Ibañez Gebarakoa (Altzolarats dorreko jauna), Joan Altzolarats (Bekolako burdinolako jauna), Joan Gartzia Lasaokoa eta beste hainbat (ikus [XV. m. 46] agiria).

Kontzejuan ziotenez, 1435. urteaz gero zenbait pertsonak herri-lurrak beretzat hartu eta bertan gaztainondo, lizarrak, etab. landatu zituzten. Luberriak eta soroak ere egin zituzten, beren lurretan ari balira bezala. Ondorioz, herritarren artean liskar eta konpondu ezinak sortzen ziren, eta egoera hari irtenbidea emateko Ordenantza hauek egin zituzten:

1. Kontzejuak zazpi bat urte lehenago (1472an) ordezkari batzuk izendatu zituen herriko ofiziale-



15.13. irudia. Bekola baserria.

kin herri-lurrak bisitatu eta azken 44 urteetan okupatu zirenak libratzeko. Ordezkarri haiek, ordea, ez zuten bere lana ongi egin, eta haiek egina deuseztatuzat jo zuten. Hutsetik hasiko ziren, beraz.

2. Kontzejuko ofizialen artetik sei izendatuko zituzten, eta elkarrekin ondo konpontzen ez baziren, hamabi edo hamahiru aukeratuko zituzten, eta zozketa eginda handik sei ordezkarri aterako. Sei haiek Zestoako hiribilduaren lur guztiak bisitatuko zituzten, batez ere azken 44 urteetan okupatu zirelako susmagarri zirenak. Lur haiek erabiltzen ari zirenei deitu eta jabe zirela frogarazi egingo zieten. Hiru edo lau lekuko ekarri eta zin eginaraziko zieten. Herri-lurrak zirela erabakitakoetara sartzea eta bertan ezer landu edo aldatzea debekatu egingo zitzaion edonori. Bestela zigorra ezarriko zen.

3. Herri-lurtzat hartzen zirenetan zeuden gaztainondo eta gainerako zuhaitzak Kontzejuak saldu egingo zituen ikatza egiteko. Lapatu egingo ziren,

baina enborrik ez zen moztuko; ez eta zuhaitza ihartuta baldin bazegoen ere. Bestela zuhaitz bakoitzeko urrezko bi koroa ordainduko zituen gaizkileak. Mendizainek zorrotz beteko zuten agindu hura. Probestuak betearaziko zituen zigorrak.

4. Kontzejuak herri-lurren bat saltzen baldin bazuen, herritarrek lurreko gaztainak oztoporik gabe jaso ahal izango zituzten, nahiz eta eroslea egon.

5. Herri-lurretan lizarrak aurkitzen baldin bazituzten, zuhaitz haiek aldatu zirenean balio zutena ordainduko zioten landatzaileari.

6. Lurrak 44 urte baino gehiagotan eduki zituenari utzi egingo zizkieten, baina lehen herri-lur izan zelako susmoa bazegoen, jabeak ezingo zuen han ezer aldatu, eta itxiturarik ere ez zuen aurrerantzean egingo, lehen egin ez bazuen. Bestela, lurra Kontzejuak eskuratuko zuen.

7. Herri-lurretan zuhaitz aldatu berriak aurkitzen bazituzten, landatu zituenak atera eta eraman egin behar zituen martxoaren lehena baino lehen. Bestela Kontzejuarentzat izango ziren.

Ordenantza haiek betetzea zin egin zuten Kontzejuen zeudenak. Bestela bakoitzak urrezko ehun dobla ordainduko zituen.

Joan Altzolaratsek eta Pedro Otxoa Artazubiaga-koak ziotenez, zuela zazpi urte ofizialek eta ordezkariak erabakitakoa deuseztatzea ez zuten onartzen. Haiek erabakitakoa ontzat eta indarrean zegoela kontsideratzen zuten.

Agiriaren lekuko Fernando Altzolarats, Pedro Fernandez Aizarnazabalgoa eta Pedro (Fernando Larretxeren semea) zestoarrak izan ziren. Joan Lopez Amilibikoa eskribauak idatzi zuen agiria.

Agindutako lana egiteko ordezkari hauek izendatu zituzten: Joan Askatsua alkatea, Sebastian Olazabal batxilerra, Joan Martinez Zabalakoa (probestuordea) eta Joan Martinez Ibañetakoa fiela.

- 1479-VII-30ean hasi zuten izendaturiko ordezkariak eta Joan Lopez Amilibikoa eskribauak beren lana, Iraetan hasi ere. Handik aurrera, urratsez urrats, hiribilduaren jurisdikziopeko lur guztiak ikertuko zituzten. Iraetako jauregitik gertu Goikoetxea izeneko sagastitik hasi ziren.

- 1479-VIII-2an Altzolaraspekora (Bekolara) joan ziren. Pagaldeko sagastia ere aztertu zuten.

- 1479-VIII-3an Pagalden, Aizarnatea aldean eta Aztiederra izeneko lurrean izan ziren. Zornotza edo Zorrontza aldea ere ikuskatu zuten. Peroandiasoro, Mariasoro eta Urbietta (Urbitta) aldea, Olajaunlizardia, Ibarako landa eta Olazarreta izeneko etxe aldeak ere miatu zituzten.

- 1479-VIII-5ean Kardelgo saroiaren (12 gorabilekoa zen) zeuden hiribilduko ordezkariak. Ezkibalurrera joan ziren gero (garai batean burdinola zegoen lekura). Zearzelai, Donamariasoro eta Pagalde

aztertu zituzten. Pagaldazuri baserriko lurrak ere mugatu zituzten. Baita Elordi izeneko lekua ere.

- 1479-VIII-9an Urdaneta aldeko Arbe baserria, Indo, Korteeta izeneko lurra eta Kortazar etxe ingurua ikertu zituzten. Gaztainandieta eta Arriolasorora joan ziren gero.

- 1479-VIII-10ean Altzolarasko dorre edo jauregi inguruan ziren. Olazarreta izeneko lekua eta Lera-bide izenekoa aztertu zituzten.

- 1479-VIII-11n dorreko gaztainadian ziren. Bekolako burdinola aldeko Iturluzeaga eta Sustraiaga (Sustrai) ikertu zituzten. Gaztainaditxia, Uberaga eta Lizardi izan ziren han aztertutako beste leku batzuk. Pagalde izeneko sagastia ere bai, Beltran Ibañez Gebarakoarena.

Egun berean Urbietta (Urbitta) etxearen inguruak, Arroiandi (Kortazar aldera), Baratzazarra, Motroitzaga, Bengoetxea ondoa, Auntzesierreka eta Iturritza ere miatu zituzten. Arana haritzia, Ezkiaga, Kardel saroiaren ingurua, Olasoro, Baztersoro, Jaundonemigelsoroa, Abendaetaburua, Ibarrolasoro, Ausoroetxearen ingurua, Garroko errota gaina, Ibarrola eta Lizardizabala izeneko lurrak ere aztertu zituzten.

- 1479-VIII-12an Joan Urbietaren txabolan ziren. Ondalde aldea, Arlasteaga, Pagalde eta Auntzesierreka aldea ikertu zituzten. "Jaundonemigelsoroa" leku-izenak Baionako elizbarrutiko forma dela iradokitzen digu. Halaber "Donamariasoro" leku-izenak.

- 1479-VIII-13an Ondalde etxean ziren. Kardel izeneko saroi aldera Beretersoro miatu zuten. "Bereter" izenak (akolitoa izan nahi du) 11.10.2. atalean aipatu dugun Zuberoako Bereterretxe gogorazten du.

- 1479-VIII-14an Ondaldetik gora Goikoetxe aldea, Saiaz aldeko soroa, txabola, etab. aztertu zituzten.

- 1479-VIII-15ean Indo etxean ziren. Eluseta menditik Gaztainaditxipiraino eta Gaztainagazteetarai-

no aztertu zuten. Elusetako mendisoria eta Ondaldeko Sorazarreta ere bai. Auztorkieta izeneko lurra, Beltran Urbietaren errota aldea, Larrabide, Motroitzaga eta Ahuntzebaso izan ziren beste aztergai batzuk.

- 1479-VIII-16an Urbietan bailaran Zubitxoetan ziren hiribilduaren ordezkariak. Olaibaratze, Lizasoeta aldea, Iturbeerreka, Lanberria, Lerabil eta Olajaunlizar aldea ikertu zituzten.

Lizasoetagoikoan, Joanen baserri ondoan, Iturbeerreka, Pagi aldea, Urkiagarena izan zen Lizasoetako etxe aldea, Aizarnate aldea, Aizponton, Zelaitxo, Lunarratuarereka aldea, Pagioko Elusa, Errekapitar eta Araneta miatu zituzten.

- 1479-VIII-17an Zestoako ordezkariak Pagiolarren (Paginolarrean) ziren. Lizasoeta aldea, Arantzabelztia eta Txiriboga alderainoko lurak aztertu zituzten. Araneta etxearen azpia eta Txiriboga aldeko teileria inguruak ere bai.

- 1479-VIII-18an Pagiogoikoan ziren hiribilduko ordezkariak. Dominensoro, Zelaieta, Ertxiña aldea, Arana, Urrutikosoroa eta Igartzatxo ikertu ziren.

Egun hartan Amilibiko etxera iritsi ziren. Iraetako saroitik Pagiolarrean zihoan bidexkaren goian mugarrria ipini zuten. Handik behera ibairaino ere bai. Egun berean Martin "Luze" Landerrainen sagastia mugatu zuten, besteak beste.

- 1479-VIII-19an Sorazabalgo etxean ziren. Etxe ingurua eta Aizarnate ingurua ikertu ziren. Apategiko azpia ere bai. Iturbe eta Arteaga izeneko sorak, Olaondogoiakoa, Soroabieta, Lopesoro eta Olaondo ikertu ziren.

- 1479-VIII-20an Aizarnako Ibarra izeneko lekuan ziren. Gazteluaitzaga, Iribarrena aldea, Aranburu aldea, Ormazarraga txabola eta ingurua, Aizarnateko etxe aldea, Soratxo, Olazarraga, Askatsua ingurua, Ansolopezagarreta, Irameteeta, Etxega-

raizelai aldea, Etxegarai baserri aldea eta Aldaibe mugatu zituzten.

- 1479-VIII-21ean Aranburu etxean zeuden herriko ordezkariak. Elkoeta, Zuloeta, Potzueta aldea, Aldalur aldea, Zabala etxe ingurua, eta Iturralde-elorrondo izeneko lurak mugatu ziren.

- 1479-VIII-22an Aizarnan Autsoron (Autxo esaten diogu orain) Joan Beltran Iraetari (Joan Beltran III.a Iraeta, Iraetako jauna izango zela uste dugu) mendiari buruzko eskriturak eta informazioa ekarrezala agindu zioten.

- 1479-VIII-23an Aizarnako Aizpurun, iturri azpian, eta Santa Engrazia aldera zegoen sagastian eta handik Aizarna aldera mugarrria ipini zituzten. Arizmendin Intzaurarte izeneko lekua mugarritu zuten.

- 1479-VIII-24an Arangurenen Aizarna aldera sorobat mugarritu zuten. Baita Lizardielusa ere.

- 1479-VIII-25ean Egañagoikoan ziren Zestoako ordezkariak. Egañamendiko bidean mugarrria ipini zuten. Maoz, Altzegi, Altzaga, Arranbide, Zelaitxi-pieta, etab. ikertu zituzten.

Egañazpin ziren egun berean Zestoako ordezkariak. Maozko belardi eta Bengosagastia mugatu zituzten. Otxoa Aranoren Gorosarrin ziren egun hartantxe, Ipintza izeneko sororan.

- 1479-VIII-26an, Aranon ziren. Aranobaso, Ato-biagako sagastia, Etxeberri baserria, Agirre etxea (baliteke oraingo Agerre etxea izatea, hau da, Alberdikoaren ondoan dagoena), Iturrieta, Lorbidetxe, Alkortegi, Auntzesieta eta Geiaztarri Ezenarro aldea ikertu eta mugarritu ziren.

- 1479-VIII-27an Apategi etxean ziren. Arretza, Ezenarroazpikoa, Alkortegi, Espillako soroa, etab. mugarritu zituzten. Ezenarrogoikoa, Eheioerreka eta Ereño aldea ere ikertu zuten.

15.14. irudia. Urbieta (edo Urbitta) baserria.



15.15. irudia. Aizarnako Ibarra baserria.

- 1479-IX-1ean Ereñon ziren, ustez Fernan Ruiz Etxeberrikoarenak ziren lurretan. Ereño, Ezenarro eta Andisoro aldeko lurak mugarriztatu zituzten. Igartzan Urkidi aldeko soroa, Untzesoro eta Akoa aldeko Lerabiako erreka ingurua ere bai. Landa-bietako soroa zen aztertutako beste lur bat.

- 1479-IX-2an Edarritzagagoenean Joan Beltran Iraetak burdinola bere presa, ubide, lur eta guzti,

berea zuen. Upai aldera Erretolako sagastian ere mugarriak ipini zituzten. Berisatezarrena aldetik ere bai. Illurdango sarioian herriak eskubideak zituen. Dirindidaandiko sagastia ere aztertu zen. Edarritzagako burdinola berriaren ingurua (Olabe- rri ingurua), Igarazarreta, Lope Zelaiaren landa, Edarritzagabarrena ingurua, Anegi aldea, Ereño- zarra, Igartza, Enparandi eta Akoarretxea aldeko lurak ikertu zituzten. Lasaon Dendariolazarreta

(Edarritzaga aldera) eta Arranbideko burdinola ingurua mugarritu zituzten.

- 1479-IX-3an, Gallain (oraingo Gallarin) ziren. Urkidipea, Errezil etxearen ingurua eta txabola ingurua aztertu ziren. Etorragaraikoan pagadia, Lorbide aldea eta Iturregi mugarritu ziren.

- 1479-IX-4an, Moztiko Aisororen lurretan ziren, Erretzabal eta Lili artean. Mendiurreko sagasti aldera mugariak ipini zituzten. Erretzabal ingurua eta Aiakelu ere ikertu zituzten. Erretzabalgo etxeak Moztiko errekan 9 intxaurrondo eta 2 gaztainondo zahar zituen, eta Otxoa Ibañez hauspaginak 12 zuhaitz zahar. Erretzabalek Aiakelun 10 zuhaitz zahar zituen.

- 1479-IX-5ean, Moztin Pero Otxoaren txabolan ziren. Pero Lopez Bergarakoa eskribauaren eskritura aurkeztu zuen. Beraz, Mozti etxetik gorakoa Matxin Merzero zenaren lurretaraino herriarena zen, eta bertan bidea zegoen.

- 1479-IX-6an Etorrazpin sagasti handiaren azpian mugariak ipini zituzten, Etorrako saroiraino eta Sagastizabaleraino. Aisoroko gaztainadia ere aztertu zen.

- 1479-IX-7an Idiakaitzen (edo Ibiakaitzen) ziren Zestoako ordezkariak. Sorotxipia izeneko gaztainadia, Aiakeluko bidea eta Liliko burdinola ingurua mugarritu zituzten.

- 1479-IX-9an Lilin ziren. Handik Moztirako bidea, Aisoro eta Lasa erreka aldea aztertu zituzten. Egun berean Pero Lopez Barrundikoa zenaren sagasti berria, Lilitik Sastarrain aldera ubide zaharretaraino zegoena, ikertu zuten. Sastarrain etxeaz goitikoa ere bai, Bengolarre aldea, hain zuzen.

- 1479-IX-10ean hiribilduaren inguruan zeuden herriko ordezkariak. Kortazar, Ondalde eta Ausoroetxearen azpian zeuden ibai aldeko lurren jabe zirela frogatu zuten, eta hiru etxe horientzat (bakoitzak zegokion zatia hartuta) geratu ziren, lehen hartutako erabakia deuseztatuta. Bi beso zabaleko herri-bidea utzi beharko zuten.

Egun berean Atristainen ziren, Joan Mateoren sagastian. Goian, Gallain (edo Gallari) aldera herri-lur bat aurkitu zuten. Arbiak zituen soro bat herriarentzat hartu zuten, eta bi mugarri ipini zituzten.

Egun hartantxe, Martin Arreoren sagasti ondoan Atristain aldea, Gesalagako burdinola egon zen



15.16. irudia. Etorrazpi baserria.

lekua eta Akoa aldera zegoen sagastia mugarritu zituzten. Zestoa alderago Amabiturrieta ere ikusi zuten.

- 1479-IX-11n Zestoako ordezkariak Iturralden ziren, Pedro Atxuberen lurretan. Pagio aldera bidea zuen. Artigagaraikotik (Arteagagaraikoa edo Ertxiñondotik) gorako lurak ere ikertu zituzten.

- 1479-IX-12an Artigagaraikoan (Ertxiñondon) mugarría ipini zuten sagastiaren barrenean. Enekosauztegi aldea eta Ariztondo aldea ere ikuskatu zituzten.

- 1479-IX-13an Enekosauztegin zeuden hiribilduko ordezkariak. Bertako zenbait sagasti mugarritu ziren. Gero Urritzelusen, Etorra aldean, ibili ziren lurak mugatzen.

Egun hartantxe Enekosauztegi azpiko lurretan, Azpeitira zihoan bidearen eta Aizarnako bidearen ondoan Aizarnako Andre Maria elizaren lurak mugarritu zituzten. Amabiturrietan sagasti bat ere bai.

- 1479-IX-15ean Akoaabarrenean ziren, Arreteta izeneko sagastian, Bideberrietan eta Urreiziti izeneko sagastian eta Tolaregibel izenekoan. Maindu-

radi (orain Mandulari edo Mandulain deitzen zaio) ere ikuskatu zuten Akoa aldean.

Egun hartantxe Etorrako Beltransoro izeneko lekua, Etorragaraikoaren (Etorrazarren) eta herri-lurren artean zegoena, Joan Martinez Akoaokoarentzat geratu zen. Joan Etorragaraikoak mugarrituko zuen.

- 1479-IX-16an, Sagarberri izeneko garo-lekuan herri-lurra aurkitu zuten. Garoaren prestazioa izango zuen Akoaoko Enparandi etxeak. Akoaoko Zubeltzuko soroan, Erbinako erreka aldean, Sorazarretan, Igartza eta Enparandi aldean ibili ziren. Enezutia sagastia, Albizuri soroa, Iradi gaztainadia, Zuubeko<sup>43</sup> iturri aldea, Zubigoena ingurua mugarritu zituzten.

- 1479an, ustez iraileko egunen batean, Zestoako hiribilduko ordezkariak Bedamako Errotabarrenan ziren. Hango errota ingurua aztertu zuten.

- 1479-IX-20an Zestoako hiribildu inguruan, Joan Altzolaratsek Zornotza (edo Zorrontza) etxearen eta Bekolako sagastiaren arteko lurraren jabegofrogak ekarri zituen. Beraz, lehen egin zuten aitopena deuseztatu eta Bekolako etxearentzat utzi zuten. Bideak errespetatu egingo ziren.

15.17. irudia. Zornotza (edo Zorrontza) baserria.



Egun berean Zestoako zubi ondoan, Joan Urbietak eta Beltran Urbietak jabego-frogak ekarri zituzten Pagalde eta Bengoetxeko errotaren presa arteko Ibarrolasorori buruz. Beraz, lehen egindako aitopena deuseztatu eta Joan eta Beltranentzat geratu zen Ibarrolasoro.

Sebastian Olazabal batxilerrak mendisoroez txostena zuen egina. Indo, Ondalde eta Kortazarren ziren batzuk. Otsandasoro zen haietako bat.

Joan Martinez Akoakoak Amisoro izenekoa erakutsi zuen, Igartzako partean Ereñozabaleta soroa eta Edarritzagan Igarazaharra lurra (Igartzza, Enparandi eta Arretxekoa).

Mendisoroei zegokienez, hiribilduak izendaturiko arbitroek esandakoaren arabera, landu ahal izango zituzten aurrerantzean ere, baina itxiturak ipiniko zizkieten eta lurraren jabegorik ez zuten izango.

- 1479-IX-21ean Enekosauztegin Kontzeju osoa bildu zen, eta lurren mugarritzea egin zutela aitortu zuten, baina epai edo salerosketa-eskrituren kalterik gabe.

- 1479-IX-22an Bedamako burdinolan ziren, Lope Martinez Zarauzkoarenen. Kontzejuak Lope jaunari baimena eman zion urtebetez lur-puska batean lihoa ereiteko. Olagizonak, ordea, lihoaren ondoren artatxikia erein zuen, eta Kontzejuak debekatu egin zion herriaren baimenik gabe han ezer egitea. Ganadu-etxea eta gainerakoa herri-lurtzat hartu zituen Kontzejuak, Lope Martinezekin eta honen aurrekoekin egindako kontratuen kalterik gabe (ikus [XV. m. 46] agiria).

Herriko ia bazter guztiak aipatzen dituen 1479ko agiri luze honetan informazio interesgarria dago. Kontzejua Enekosauztegin biltzen zen, hau da, Eneko Sanuz (edo Santxez) jaunaren bizilekua zegoen lekuan; izan ere, Sanuz forma Sancius izenaren aldaera besterik ez da, Saniz, Sanz, Santxez, Sainz, Saez eta antzeko beste asko bezala<sup>44</sup>. Ezagunak dira Gar-

tziategi (Gartziaren etxea), Okendotegi (Okendoren etxea), Erramundegi (Erramonen etxea) eta antzeko leku-izenak, baina baita izen-deiturak, biak, dituztenak ere. Oñatin oso ezaguna da Santxolopeztegi auzoa, eta Bizkaiko Gordexolan Otxoa Urtainsauztegi pertsonaia dugu XV. mendean<sup>45</sup>.

Aizarnako Sorazabal ondoan, bestalde, karobia omen zegoen. Telleria ere bai Txiriboga ondoan. "Txiriboga" izena jakin mina piztekoa dela iruditzen zaigu. R. M. Azkuek bere hiztegi famatuan gaixorardoa dela dio, eta "txiribogin" tabernaria antzinako bizkaieraz. "Boga" edo "bogea" izena, berriz, burdinolan gabi-igunari (gabiaren habeari) eusteko burdinazko pieza zen, hau da, gabiaren habea alboko kojineteetan kulunkatzeko bi ardatz-mutur zilindriko zituen burdinazko pieza.

Egia esan, Gipuzkoan San Miliango "Txiribogak" (Zizurkilen) ere aipatzen dira XVI. mendean<sup>46</sup>. Zestoako Txiribogaraino, gure ustez, garai hartan itsasotik Urola ibaian gora zetozen txalupak burdin mearekin eta beste zenbait gairekin, eta behera landutako burdina, zura, etab. eramaten zituzten. Baliteke (eta hemen hipotesi moduan adierazten dugu) Txiriboga ibaian txalupak buelta hartzeko lekua izatea. Beste era batera esanda, ziabogan (hau da zian eta bogan) aritzeko lekua izan zitekeen. Lekeition, adibidez, XVI. mendearen hasierako agirietan "...por la parte de su nao del viaje de Chiriboa...", "...Christobal d'Amesqueta del viaje de Xiriboa..." esaldiak daude<sup>47</sup>.

Hiru saroi ere izendatzen ditu agiri luze honek, gainera: Kardel Kortazar ondoan, Iraetakoa eta Illurdangoa.

Errotak ere ez ziren gutxi: Urbietan, Txiribogan, Igartzza aldeko Iherazarreta (1419. urte inguruan errea), Bengoetxean, Amabiturrietan eta Bedaman (Joan Altzolaratsena) zeuden.

Burdinolak ere aipatzen dira agirian: Lasaoan, Altzolaratsen (jauregi ondoan), Bekolan (Altzolaraspekoa), Edarritzagagoanean (Joan Beltran Iraetarena


zen), Olaberrin Edarritzagako burdinola berria, Edarritzagabarrenean, Lasaoan (Arranbiden), Gesalagan (garai batean izan zela dio), Ezkibalurren (Urbieta aldean, garai batean burdinola izan zela dio), Bedaman (Lope Martinez Zarauzkoarena) eta Lilikoa. Iraetako etxeak ere bazuen ibaiatz beste aldera (Debako lurretan) burdinola garrantzitsua.

Agirian azaltzen diren pertsonaia garrantzitsu batzuk hauek dira: Joan Beltran III.a Iraeta (Iraetako jauna), Beltran Ibañez Gebarakoa (Altzolarats jauregiko jauna), Joan Altzolarats (Bekolako jauna), Joan Gartzia Lasakoa, Gartzia Ibañez Lasakoa, Martin Santxez Zubiaurrekoa (gure ustez Gallarin bizi zena), Joan Otxoa Olazabalgoa (gure ustez Altzolaraspeko etxearekin, Bekolarekin, lotura zuena), Joango Arreitza, Domingo Lizarrats, Joan Etorra, Pero Otxoa Artazubiagakoa (gure ustez Arrasate aldetik etorria eta Zestoan famatu izango zen familiako arbasoa), Martin Ibiakaitz (edo Idiakaitz), Sebastian Olazabal batxilerra (gure ustez jatorriz Bekolako eta Getarian

bizi zena), Domenjon Olazabal (hau ere jatorriz Bekolako, lekuko gisa azaltzen dena), Martin Diaz Lilikoa (zenbait agiritan 1479. urterako hiltzat jotzen dute, baina hemen lekuko azaltzen da), Fernando Ruiz Etxeberrikoa (1461ean Errezili Antxiturbiko sarioiaren erdia erositakoa), Fernando Edarritzaga (1466an Urruzunoko sarioian egur-ikatz lege kanpo egindakoa), Pero Lopez Barrundikoa zena (gure ustez jatorriz Arabakoa, agian Arrasate aldetik Zestoara etorria)...

1479ko agiri garrantzitsu honetan ez zituzten jaso Aizarnazabalgo eta Oikiako herri-lurrak. Hain zuzen 1470-86 bitartean Zestoako zati izan ziren, baina, dirudienez, hango Kontzejuak mugatuta zeuden Aizarnazabalen eta Oikian herri-lurrak eta lur pribatuak.

Bestalde, agiri horretantxe orain ezezagun diren zenbait etxe aipatzen da: Enparandi (Akoan), Agirre (Ezenarro eta Etxeberri artean), Mozti (Erretzabal eta Lili bitartean)...



15.18. irudia. Burdinolako boga

### 15.9.2. Batzarrak, errege-erreginak, etab.

1479. urtean maiatzean bildu ziren, Donostian, Gipuzkoako Batzar Nagusiak. Hilaren 15ean, Hondarribiaren proposamenez, Irunen zereal-saleresketa egitea debekatu egin zen. Lapurditik garia ez zegoen ekartzerik, eta Hondarribikoa erosi behar zen<sup>43</sup>. Urte hartan erregearen igorpen-alkateak Gipuzkoan lan egiten saiatu ziren, baina Gipuzkoak zuen pribilegioa berretsi egin zen, lan hura Gipuzkoari zegokiolako<sup>25</sup>. Getariako portuaren egoeraz ere eztabaidatu zen<sup>1</sup>. 149-VII-30ean Trujillotik Gaztelako Isabel erreginak hiribilduari baimena eman zion Malkorbeko arrantza-eskubidea alokatzeko. Horren diruarekin porturako pasabidea konpondu behar zuten<sup>17</sup>.

1479-X-12an Bidanian elkartu ziren Gipuzkoako Batzar Bereziak. Errege-erreginek Iñigo Belez Gebarakoari Gatzagan erabakitakoa baino gehiago kobratzea (zergak, alegia) debekatu egin zion, Domenjon

eskribauak jakinarazi zuenez. Igorpen-alkatetzako pribilegioaren kopiak zioena ere (1479-VII-12an Trujillon emana) jakinarazi zen.

1479-X-21ean Usarragan bildu ziren Gipuzkoako Batzar Bereziak. Probintziako ordenantza bat idatzi zen, eta 1479-XI-8an jaso zuen errege-onespena Toledotik<sup>1</sup>. Errege-erreginek 1479-V-11n ere onetsi zuten beste ordenantza bat Caceresen. Probintziako Ermandadearen auzietan ez zuen inork parte hartuko, errege-erreginek eta haien Kontseiluak izan ezik<sup>2</sup>.

1479-XII-3-6an Hernanin eta Zarautzen Batzar Nagusiak bilduta, ordenantza bat idatzi zuten. Probintziaren prokuradore eta mezulariei buruzkoa zen. Hurrengo urtean, martxoaren 24an, Toledon onetsi zuten errege-erreginek. Batzar haietan Arrasateko altzairugileen kofradiari Probintziak zenbait estatutu bidegabe kentzea agindu zion<sup>1</sup>.



15.19. irudia. Hernaniko udaletxea.

Batzar Nagusiak Hernanin eta Zarautzen bildu aurretik, 1479-XI-14an Gaztela eta Aragoiko Fernando erregeak hiru agiri sinatu zituen Joan Alos Amilibikoa debarrak Pedro Joan Barrera mallorcarrarekin (eta honen oinordekoekin) zuen auziaz. Bata Esteban Vargasi (epaile betearazleari) eta Gipuzkoa zein Bizkaiko agintariei bidali zien. 15.8.2. atalean adierazi genuenez, Joan Alos Amilibikoak Pedro Joan Barrerari karabela lapurtu ziolako kondenatu egin zuten. 10.000 florineko balioa zuten ontziak eta bertako esklabo zein jeneroak. Gainera epaiko kostuak ordaindu behar zituen Amilibikoak. Epaia betearaz zezatela agindu zien erregeak<sup>48</sup>.

Egun eta leku berean Fernando erregeak Esteban Vargasi (epaile betearazleari), Gipuzkoari eta Bizkaia beste agiri bat bidali zien auzi beraz. Joan Alosek fidatzaileak eman zituen: Joan Arbolantxa bilbotarra, Lope Santxez Berrondokoa (edo Barraondokoa), Domingo Alos, etab. Joan Alosek lapurtutako karabelagatik 1.500 dobla ordaintzera behartu zituen erregeak. Fidatzaile haien ondasunak bahitu egingo ziren, 3.000 doblako kopururaino<sup>49</sup>.

Egun eta leku bereko hirugarren agirian Pedro Bondori (edo Brondori) eta Pedro Joan Barrera zenaren emazte eta seme-alabei Gaztela eta Aragoiko Fernandok errege-babesa (errege-asegurua) eskaini zien Joan Alos eta honen fidatzaileen aurka, hauengandik salbu egon zitezten<sup>50</sup>.

## 15.10. 1480. URTEA

### 15.10.1. Joan Alosen auzia, Bedamako burdinola eta zestoarrak auzitegietan

Joan Alos Amilibikoa debarrak 1476an Pedro Joan Barrera mallorcarrari lapurtutako itsasontziaren auziak aurrera jarraitu zuen bere bide luzean. 1480-II-2an Gaztela eta Aragoiko errege-erreginek Hondarribiko agintariei agiria bidali zieten. Joan Alosek bertako itsasadarrean itsasontzi berria omen zeukan.

1479. urteko agiri batean, Bizkaiko Balmasedan, ekainaren 17an, Joan "Gote" Zestoakoa azaltzen da bertako auzotar gisa<sup>51</sup>. Zalantza dugu, "Agota" ote zen. Zestoa hori, bestalde, agian Sestao izango zen.

1479-I-19an, Nafarroako Joan I.a erregea (edo Aragoiko Joan II.a) Bartzelonan hil egin zen. Orduan, 1479-I-28an, Tuteran Nafarroako erregina Leonor alaba izendatu zuten, Foixko konde Gaston zenaren alarguna. Erregina berria, ordea, Tuteran bertan hamabost egun geroago (otsailaren 12an) hil egin zen. Frantzisko Febo bilobak hartu zuen Nafarroako tronua, 11 urte besterik ez zuela. Leonorren seme Gastonen eta Madalena Frantziakoaren semea zen<sup>9</sup>.

Egun haietantxe Fernando II.a Aragoiko tronuz jabetu zen, eta, aldi berean, ezkontzaz Gaztelako errege ere bazen. Gaztelan, ordea, Enrike IV.a hil ondoren oinordetza gerra ez zen amaitu 1479a arte. Portugaldairek Joana *Beltranejaren* aldekoak ziren, baina Fernando eta Isabelen tropen aurkako bataila galdu egin zuten Badajozko Albuera herrian 1479-II-24an, eta Alcantarako itunaren bidez amaiera eman zitzaion gerrari<sup>40</sup>.

Esan daiteke Gipuzkoako bandoen arteko gerrak ere orduan izan zuela amaiera. Dena den, 1479an Joan Lopez Lazkanokoa, Hondarribiko 1476ko heroia, Arabako Kontrastan hil egin zuten. Pedro Lopez Aiarakoaren, Oñatiko jaun Iñigo Belez Gebarakoaren eta Arabako Ermandadearen tropek elkarturik eraso zioten. Hilotza erre egin zuten gero<sup>22</sup>.

Agindua eman zuten Joan Alos preso hartu eta Gortera eramateko. Ontziari belak, lema eta tresneria kendu egingo zioten, itsasora joan ez zedin. Itsasontzia eta tresnak enkantean salduta Pedro Joan Barreraren ondorengoei kaltea ordaindu egin behar zioten<sup>52</sup>.

Egun batzuk geroago, 1480-II-10ean, errege-erreginek Esteban Vargas epaile betearazleari eta Bizkaiko, Bilboko, Gipuzkoako eta Debako agintariei agiria

bidali zieten. Joan Alosen fidatzaile ziren Joan Arbolantxa, Lope Santxez Berrondokoa (edo Barraondokoa), Domingo Alos eta Martin Sarasola. Joan Alosek Barrera zenari lapurtutako itsasontzia itzuli ez zuenez gero, fidatzaileen ondasunak bahitzea agindu zuten. Joan Arbolantxaren *Santiago* ontzia bahituta egon zen, baina ontzi-jabeak bere ontziarekin ihes egin zuen. Martin Santxez Arbolantxakoari 3.000 doblarainoko ondasunak bahitzea agindu zuten errege-erreginek. Ondasunak enkantean salduko zituzten, kopuru hura eta auziko gastuak eskuratu arte. Fidatzaileak preso hartu eta Gortera eraman behar zituzten<sup>53</sup>.

ri. Joan Alosek, epaia galdua, Pedro Joan Barrerari lapurtutako ontzia itzuli egin behar zion, baina itzuli ez zionez, fidatzaileek erantzun egin behar zuten. Esteban Vargas epaile betearazleak Bilbon Martin Santxez Arbolantxakoari ondasun batzuk enkantean saldu egin zizkion, eta orduan Joan Arbolantxa errege-erreginen Gortera joan zen. Urrezko 500 dobla ordaindu zituen, eta errege-erreginek jaso izanaren agiria luzatu zuten.

15.20. irudia. Hondarribiko eta Hendaiaiko itsasadarra.



Hilabete batzuk geroago, 1480-V-19an, errege-erreginek Gipuzkoako Batzarretako eskribau fiela epaile arbitro izendatu zuten Joan Alosen auzian. Pedro Joan Barrera mallorcar zenaren ondorengoak auzitara eraman zituen Sabad Azkue hondarribitarrak. Izan ere, Joan Alosen itsasontzi berria bahitu egin zuten Hondarribian, baina Sabad Azkuek partea zuen ontzi hartan, eta berreskuratu egin nahi zuen zegokionna. Fernando eta Isabelek Domenjoni aldean frogak jaso eta epaia emateko ahalordea eman zioten<sup>54</sup>.

1480-IX-3an Valladolidko Traspinedo herrian ordainagiria eman zioten Joan Arbolantxa bilbotarra-

1480-IX-30ean Traspinedon beste agiri bat sinatu zuten Fernando eta Isabelek. Fernando erregea Bilbon izan zenean, Barreraren ontzia bertan zegoen bahituta, eta erregeak baimena eman zuen ontzi hura armatu eta frantses zein portugaldarren aurka gerran erabiltzeko. Gero, ordea, itsasontzia Bilboko itsasadarra ekarri behar zuten, edo, bestela, urrezko 500 dobla (Bandako ordenako marka zutenak) ordainduko zituzten. Joan Arbolantxak jakinarazi zenez, Lope Santxez Barraondokoari (edo Berrondokoari) errege-erreginek boterea eman zioten Ingalaterrako errege eta lehengusuari (Eduardo IV.ari), delako Barreraren itsasontzia eman ziezaion, ontzia han zegoelako.

Ingalaterrako erregeak Lope Santxezi itsasontziaren balioa eman zionez gero, hark ordaindu behar zituen urrezko 500 doblak, eta ez Joan Arbolantxak. Beraz, Bizkaiko korrejidoreak eta Bilboko agintariek Lope Santxez Barraondokoa (edo Berrondokoa) preso hartu, ondasunak enkantean saldu eta 500 dobla (gehi auziko gastuak) Joan Arbolantxari itzuliko zizkieten<sup>55</sup>.

1480an Zestoarekin zerikusia zuen beste auzi bat Bedamako burdinolarena zen. 1480-II-17an Fernando eta Isabel errege-erreginek Azpeitiko (gure ustez Azpeitikoa zen, nahiz eta agirian Iraurgiko Miranda ere ipini) alkateari gutuna bidali zioten. Lope Martinez Zarauzkoak, Getariako auzotarrak, berea zuen Zestoako lurretan Bedamako burdinola. Zestoako hiribilduarekin auzia zuen. Zestoako basozainek (Peruske Ezenarrok, Joan Ezenarrok eta abarrek) Joan Lorbide olagizonari zilarrezko kikara eta zurezko kaxa bahitu zioten (4.000 maraiko balioa), bi urte inguru lehenago hiribilduari hartutako basoetatik kanpo burdinolarako ikatza egin zuelakoan. Egia ez izan arren, 700 maraiko isuna ipini zioten.

Lope Martinezena zen Arkansaro (gure ustez Artaunsaroe edo Artaunso ro behar luke) baserriko maizterrari ere 300 maraiko isuna ipini zioten bi txahal hariztira sartu zirelako, nahiz eta ganaduak kalte-

rik egin ez. Aharia ere eramán zioten.

Zestoako justiziara jo zuen, baina haiek basozainekin bat hartuta zeuden, eta, ondorioz, Lope Martinezek errege-erregingana jo zuen justizia eske. Fernando eta Isabelek, eta haien Kontseilukoek, auzia Azpeitiko alkatearen esku utzi zuten, bi aldeei entzun eta epaia eman zezan (ikus [XV. m. 47] agiria).

Bedamako burdinola Joan Altzolaratsena (Bekola-koarena) zen 1467. urtean, dagokion atalean ikusi genuenez, baina 1480an Lope Martinez Zarauzkoaren esku zegoen. Bedamako errotak, ordea, Joan Altzolaratsek bereak zituen 1480an.

Garai hartan, *Errege Katolikoek* erreinuan burdinoletako zergak jasotzeko pribilegioak berraztertu egin zituzten, eta Lope Martinez Zarauzkoak Bedamako bere burdinolatik jasotzen zituen 2.000 maraitik 1.000 marai baino ez jasotzeko eskubidea geratu zitzaion<sup>38</sup>.

1480-III-6an Toledon Fernando erregeak agiria sinatu zuen Joan Martinez Ibañetakoaren alde. Zestoako hiribilduko elizan apaiz eta benefiziadu zen Joan Martinez Ibañetakoak, izen bereko semea izan zuen Maria Zuube zenarekin. Ama ezkongabea zen eta



15.21. irudia. Bedama. Granada baserria.

inongo loturarik gabea, baina hila zen. Joan Martinez apaizak erregeari mesede eskatu zion Joan Martinez Ibañetakoa semea legezta zezan eta legezko semeek bezalako eskubideak izan zituzan.

Erregeak mesede egin zion. Semea legezaturik geratu zen, eta era guztietako ondasun, herentzia eta askatasunak eskuratu ahal izango zituen. Horren aurka zeuden legeak aipatu ziren, baina ez ziren oztopo izango (ikus [XV. m. 48] agiria).

Fernando eta Isabel errege-erreginek eta haien Kontseilukoek Pedro Otxoa Iribekoaren eta Martin Amilibiaren auzia ere esku artean zuten. 1480-III-22an Errege-kontseiluko Andres Villalon doktoeari agindua eman zioten alderdiek ziotena entzun, frogak ikusi eta epaia eman zezan. Liho-kintal batzuk, larruak eta zenbait salgai zeuden gorabeheran, Iribek Amilibiari eskatzen zizkionak<sup>56</sup>. Pedro Otxoa Iribe debarra zen, zeren eta Debako urte haietako agirietan azaltzen baita. Martin Amilibia, berriz, gure iritziz Aizarnazabalgo Amilibiaundikoa zen. 1483-XI-30eko agiri batean ere azaltzen da, adibidez. Ez da ahaztu behar, gainera 1470-1486 denboraldian Aizarnazabal eta Oikia Zestoako hiribilduko zati zirela.

1480-VI-10ean Fernando eta Isabel errege-erreginek agiria egin zuten. Haien ziotenez, Joan Beltran Iraetak Joan Berastegi prokuradorearen bidez Errege-kontseiluan auzia aurkeztu zuen apelazio-mailan. Gipuzkoako Ermandadeak Elgoibarren batzartuta epaia eman zuen, eta ez zioten gora jotzea onartu. Horregatik eskea egin zion Errege-kontseiluari Joan Intsausti eta honen lagunak auzitara aurkez zitezten. Beraz, Joan Intsaustiri eta honen lagunei dei egin zieten Gortera joan zitezten, eta horretarako epeak ere zehaztu zizkieten. Gortean beren defentsa egin ahal izango zuten. Joaten ez baziren, Joan Beltranek bere arrazoiak azaldu ahal izango zituen, eta epaia emango zuten (ikus [XV. m. 49] agiria).

1480-VI-12an Toledon Fernando eta Isabel errege-erreginek Getariako eta Debako agintariei agiria bidali zieten. Zestoako Fernando Ruiz Etxeberrikoak zioenez,

auzia eduki zuen Gipuzkoako Iñigo Santxez Goiazkoa korrejidoreordearen aurrean Migel Ibañez Orexakoa getariarraren aurka. Fernando Ruizek auzia irabazi egin zuen, eta getariarrak urrezko 150 koroa ordaindu behar zizkion. Ondorioz, errege-erreginei epai hura, betearaz zedin, berrets zezatela eskatu zien. Zestoarrak berrespena lortu egin zuen (ikus [XV. m. 50] agiria).

1480-IV-26an Toledon Fernando eta Isabel errege-erreginek Azkoitiko Pedro Idiakaitz errege-ganberako eskribau eta notario publiko izendatu zuten. Aita Martin Perez Idiakaizkoa eskribauaren erregistro guztiak Pedro semearen eskuetara pasatuko ziren. Eskribau berriak zegozkion soldata eta eskubideak jasoko zituen bere lanagatik<sup>57</sup>.

1480-XI-25ean Fernando eta Isabel errege-erreginek Medina del Campotik Arroako Pedro Ermua eta Joan Busturtzari? agiria bidali zieten. Arroako Otxoa Ibañez Igartzakoak Errege-kontseiluan auzia ipini zuen. Zortzi bat urte lehenago (1471. edo 1472. urtean) Pedro Igartza osaba Narruondo aldean (Joan Lopez Narruondokoaren etxe inguruan) hil egin zuten. Arroan ezin zuen justizia behar bezala lortu, eta, ondorioz, Errege-kontseiluan salatu egin zituen Pedro eta Joan hiltzaile zirelako.

Errege-erreginek epea eman zieten salatuei Gortean aurkez zitezten eta beren buruak defenda zitzaten (ikus [XV. m. 51] agiria).

### **15.10.2. Probintziako Batzarrak eta Ordenantzak, jauntxoaren gorabeherak, etab.**

1480. urtean Gipuzkoako lehen Batzarrak Usarragan izan ziren, ekainaren 19an eta 20an. Batzar Berezi haien ondoren Batzar Nagusiak Elgoibarren ospatu ziren abuztua baino lehen.

Berriz ere Batzar Bereziak Usarragan bildu ziren, ekainaren edo uztailaren 19an eta 20an<sup>1</sup>. Foru-baime-na eman zitzaion 1480-V-12an Toledon sinatutako errege-agiriari<sup>58</sup>. Probintziako kapitain jeneral gisa Joan Ganboa hartu zuen Probintziak<sup>2</sup>. Joan Ganboa

Leonor Castrokekin ezkondata zegoen, eta senar-emazteek Hondarribiko hiribilduarekin ituna egin zuten elizako kapera nagusiko eskulturak egitearren<sup>21</sup>. Bestalde, Batzarrek otsailaren 6an emandako arauak onartu egin ziren. Irun eta Hondarribia behartu egin ziren zereal-merkataritza onar zezaten<sup>2</sup>. Irundik ezingo zen zereal-traturik egin, Hondarribiaren mesedetan<sup>3</sup>.

Leku berean, hau da, Usarragan, bildu ziren (urte hartan hirugarrenez) Batzar Bereziak urriaren 16an. Batzarretako prokuradore ezingo zuten izan legegizonek eta abokatuek. Legegizonei debekatu egin zitzaizen Batzarrak ospatzen ziren hiribilduetara joatea. 1480-IV-16an Medina del Campon Isabel erreginak emandako pribilegioak eskubide hori eman zion Probintziari.

Azaroan Deban ospatu ziren Gipuzkoako Batzar Nagusiak. Bi ordenantza onartu zituzten: 1) Ahaide Nagusiek ez zuten hiribilduan alkaterik edo ofizialik ipiniko; 2) Batzarretan hitz egindakoa sekretupean gordeko zuten idazkariak eta prokuradoreek, Ahaide Nagusiek ezer jakin ez zezaten. Ordenantza haiek hurrengo urtean izan zuten errege-onespena<sup>1</sup>.

1480-III-24an Toledon emandako errege-agiriaren arabera, gastuen banaketak ez zitezkeen Batzar Nagusietatik kanpo egin. Batzar Bereziatan aztergai zen arazoak sortutako gastuak baino ezin ziren banatu<sup>2</sup>. Bestalde, arazo txikiengatik Probintziari auzirik jar ez ziezaioten eta, ondorioz, Batzarrak asko luza ez zitezten, alde bakoitzak ordaindu beharreko gastuez gain Probintziari 2.000 marai ordaindu beharko zizkion<sup>20</sup>.

*Errege Katolikoek* hirietako korrejidorea izendatzen zuten, eta bertako alkatearen gainetik zegoen, bere botere eta eginkizunak zehatz-mehatz finkatuta izanik. Indar zentralizatuaren bidez aristokrazia eta komunitateak mendean hartu nahi zituzten<sup>41</sup>. Gipuzkoan ere bazen korrejidorea, baina Batzarretan forubaimena bizi-bizirik zegoen, eta halaxe egon zen *Errege Katolikoek* agintaldi osoan ere.

*Errege Katolikoak* Gorteen boterea ahultzen ere saiatu ziren. Errege-kontseilua indartu zuten, eta Gor-

teak gero eta gutxiago biltzen ziren. Enrike IV.a hil ondoren hamar urtean lautan bildu ziren, eta gero hamabost urte igaro ziren Gorteak bildu gabe.

Koroaren ondasunak ere zuzenean administratzeko era antolatu zuten, eta errentak asko igo zitzaizkien denbora gutxian<sup>40</sup>. 1480ko Toledoko Gortetan, adibidez, zenbait pertsona eta Kontzejuk izandako mesedeak murriztu egin ziren. Horrela koroara 30 milioi marai itzuli ziren. Pedro Manrique (Trebiñuko kondea) eta haren emaztea izan ziren mesedeak murriztutako bi. Bizkaian eta Gipuzkoan itsasoko lantza guztiak (hau da, gerrarako lantzari edo baleztariak itsasoz bidaltzeko konpromisoagatik jasotako mesedeak) deuseztatu egin ziren.

Armagintza ere gogoz bultzatu zuten Bizkaian, Gipuzkoan eta Araban, Siziliako gotorlekuak (*Errege Katolikoek*) turkoengandik babestearren<sup>16</sup>. Inkisizioa ere indartu zuten *Errege Katolikoek*. Hain zuzen lanean 1480an hasi zen Sevillako hirian<sup>59</sup>.

1480. urtean Gipuzkoako Alkate Nagusi Joan Santxez Elduaiengoan izan zen<sup>15</sup>. Donostian probestu, berriz, Martinez Engomez zen, eta getariarrekin auzia zuen. Getariako hiribilduak urteroko lehen balearen erdia ez zion Donostiako probestuari emango. 640 kintal burdina dirutan emango zizkion 1480-V-27an egindakoa itunaren arabera<sup>17</sup>.

Garai hartan hasi zen hiribilduetako Kontzeju irekiak (auzotar guztiak parte hartzen zutelarik) egin ordez Kontzeju itxiak egiteko joera. Kontzeju irekiaren ordez "Errejimentuko" kideek hartuko zituzten, gero eta gehiago, erabakiak. Errejidore izateko, gainera, ondasun aldetik baldintza batzuk bete beharko ziren<sup>34</sup>.

1480-II-1ean Leintzen Pedro Gebara jauna hil zen. Altzolarats jauregikoa zen, Joan Beltran Gebararen semea eta Beltran Ibañez Gebarakoaren anaia. Leinzo Marulandako etxe, errota eta burdinolako jauna zen. Arabako Oreitako jauregia erosi zuen. Katalina Mora Lizarrakoarekin ezkondu eta Pedro eta Katalina seme-alabak izan zituen. Pedoren Lope Gebara anaia

apaiza Oreitako benefiziadu zen. Beste gebaratar bat, Oñatiko Iñigo Belez jauna, 1480 Leongo erreinuko arduradun nagusi edo “Adelantado” izendatu zuten<sup>13</sup>.

Iñigo Belez Gebarakoaren sasiko seme bat, Pedro Gebara, Segurako Larrastegi etxeko oinordekoarekin ezkondu zen, lehenago ere aipatu dugunez, eta seme-alabak izan zituzten. Haietako bat Nikolas Gebara izan zen, *Errege Katoliko*en Gortean ibili zena. Besteak beste, Orioko probestu izan zen, eta 1480. urte inguruan eraikiarazi zuen Segurako gebaratarren jauregia<sup>60</sup>.

Esana dugu 1477. urtean, besteak beste, Iñigo Belez Gebarakoaren soldaduek Joan Lopez Lazkanokoa Arabako Kontrastan hil egin zutela. Lazkanokoa Leonor Zuñiga emazte alargunak seme-alabekin ituna egin zuen Gasteiz hiriarekin eta Kontrasta hiribilduarekin, eta, ondorioz, 1480-XI-26an Medina del Campon egindako errege-agirian hiltzaileek barkamena lortu zuten.

Azkoitian 1480an Martin Otxoa Bizkargikoa hil egin zuten, eta aita Gonzalo Martinez Bizkargikoa auzia izan zuen Joan Gartzia Baldakoarekin eta honen emaztearekin.

1480an auzitan zebilen beste jauntxo bat Joan Lopez Arriarangoa zen. Lope Artoa zuen aurkaria, Arriarango monasterioko eskubide, errenta eta etekinak kendu egin zizkiolako. 1480-VI-19an Toledon egindako errege-agiri baten bidez berreskuratu zituen eskubide haiek. Arriarango burdinolak zirela medio, 1480ko abenduan Fernando Miranda jaunarekin auzitan zen. Joan Lopez Arriarangoa Maria Lopez Iraeta-koarekin ezkondu zen<sup>20</sup>.

1480-XI-28rako Aizarnazabalgo Martin Ierroa erretorea hil egin zen, eta haren ordez Iruñeko Alfonso Carrillo apezpikuak Joan Intsausti azkoitiarra izendatu zuen erretore berri. Intsausti gizon bertutetsua omen zen, eta parrokiako arimak ongi zainduko omen zituen. Elizako eskubideak eta ondasunak ere ongi kudeatu behar zituen. Kargu hura bakean edukiko zuen, eta beste inork ez zion aurka egingo. Kargu hura inork erabiltzen bazuen, berehala kargugabetutzat joko zen.

Joan Intsaustik zin egin zuen apezpikuari eta haren ondorengoei obedituko ziela eta karguaren eginberrak zintzo beteko zituela (ikus [XV. m. 52] agiria).



15.22. irudia.  
Segura.  
Gebaratarren  
jauregia.

## 15.11. HAMABOSGARREN KAPITULUKO OHARRAK

<sup>1</sup> ORELLA UNZUE, J. L. *El origen de las Juntas de Gipuzkoa*, in Historia de las Juntas Generales y la Diputación Foral de Gipuzkoa. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1992. (50-52, 54-56, 63. or.).

<sup>2</sup> ORELLA UNZUE, J. L. *Instituciones de Gipuzkoa en el Libro de los Bollones*, in El Libro de los Bollones. Iturriak, 1. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1995. (160, 161, 168, 169, 186, 194, 352, 393, 394. or.).

<sup>3</sup> LARRAÑAGA ZULUETA, M. eta LEMA PUEYO, J. A. *Regesta de las Juntas Generales y Particulares de Gipuzkoa hasta 1550*, in Las Juntas en la conformación de Gipuzkoa hasta 1550. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1995. (110, 111, 113. or.).

<sup>4</sup> HERRERO, V. J. eta BARRENA, E. Archivo Municipal de Deba. (1181-1520). I. Fuentes documentales del País Vasco, 123. Eusko Ikaskuntza. Donostia, 2006. (217-223, 246-252, 257-264. or.).

<sup>5</sup> AROZENA, I. *Los Parientes Mayores y las guerras de bandos en Guipúzcoa y Vizcaya*, in Historia del Pueblo Vasco 1. Erein argit. Donostia, 1978. (170. or.).

<sup>6</sup> MITXELENA, K. Textos arcaicos vascos. Minotauro argit. Madril, 1964. (98-100. or.).

<sup>7</sup> CRESPO RICO, M. A. eta beste. Colección documental del Archivo Municipal de Mondragón. Tomo IV (1471-1500). Fuentes documentales medievales del País Vasco, 69. Eusko Ikaskuntza. Donostia, 1996. 217. agiria. (380-382. or.).

<sup>8</sup> GOÑI GAZTANBIDE, J. Historia de los obispos de Pamplona. s. XIV-XV. II. alea. Iruñea, 1979. (589-593, 598, 599, 605, 612, 640. or.).

<sup>9</sup> LACARRA, J. M. Historia política del Reino de Navarra. III. alea. Nafarroako Aurrezki Kutxa. Aranzadi argit. Iruñea, 1973. (328, 329, 331, 341, 347. or.).

<sup>10</sup> DIEZ DE SALAZAR, L. M. eta AIERBE IRIBAR, R. M. *Autoría y contenido del Libro de los Bollones*, in El Libro de los Bollones. Iturriak, 1. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1995. (139, 168. or.).

<sup>11</sup> AIERBE IRIBAR, R. M. eta ETXEZARRAGA GABILONDO, J. Archivo Municipal de Elgoibar (1346-1520). Fuentes documentales del País Vasco, 94. Eusko Ikaskuntza. Donostia, 1999. (93-97. or.).

<sup>12</sup> AIERBE IRIBAR, R. M. Historia del condado de Oñate y señorío de los Guevara (S. XI-XVI). II Documentos. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1985. (167-183. or.).

<sup>13</sup> AIERBE IRIBAR, R. M. Historia del condado de Oñate y señorío de los Guevara (S. XI-XVI). I Estudio. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1985. (159, 195, 197, 200, 203, 209. or.).

<sup>14</sup> LEMA PUEYO, J. A. *“Por los procuradores de los escuderos hijosdalgo”*: de la Hermandad General a

*la formación de las Juntas de la Provincia de Guipúzcoa (siglos XIV-XVI)*, in *El triunfo de las elites urbanas guipuzcoanas: nuevos textos para el estudio del gobierno de las villas y de la Provincia (1412-1539)*. (89, 99. or.).

<sup>15</sup> TENA GARCIA, M. S. *La sociedad urbana en la Guipúzcoa costera medieval: San Sebastián, Rentería y Fuenterrabía (1200-1500)*. Donostia, 1997. (200, 373, 374. or.).

<sup>16</sup> LABAIRU GOIKOETXEA, E. *Historia General del Señorío de Bizcaya. III. alea. La Gran Enciclopedia Vasca* argit. Bilbo, 1968. (271, 278-284, 294, 319, 320, 322, 323, 651, 653-655. or.).

<sup>17</sup> TXUEKA ISASTI, F. *Getariako erregearen balea eta Donostiako probestua*, in *Boletín LXIV-1-2008. Euskalerrriaren Adiskideen Elkarte*. Donostia, 2008. (120-128, 137, 138, 143, 146. or.).

<sup>18</sup> ELOSEGI, J. *Juntas Generales y Particulares de Guipúzcoa. Índice de las celebradas en los siglos XIV y XV*, in *Boletín de la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País. XXXIV. urtea. 3 eta 4. koadernoak*, 1978. (551, 552, 553. or.).

<sup>19</sup> Etorrako saroiaren haustarria oraingo "Austarritza" izeneko lursailean zegoen. Zelaitxikietako Raimundo Altuna jaunarena da lursaila. Beroaran baserritik Etorra edo Aiakelu aldera aldapan gora berrogei bat metrora dago.

<sup>20</sup> ORELLA UNZUE, J. L. *Instituciones de Gipuzkoa y Oficiales Reales en la Provincia (1491-1530)*. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1995. (87, 88, 100, 105, 106, 108, 111, 116, 123, 124, 126, 175, 181, 279, 283, 285, 324. or.).

<sup>21</sup> RUIZ FERNANDEZ, A. eta AGIRRE GARTZIA, J. *Euskal Herriko Erdi Aroaren historiako dokumentu idatzi eta grafikoen iruzkin-ereduak*. UEU argit. Bilbo, 2006. (188. or.).

<sup>22</sup> FERNANDEZ DE LARREA ROJAS, J. A. *Los señores de la guerra en la Guipúzcoa bajomedieval*, in *Los señores de la guerra y de la tierra: nuevos textos para el estudio de los Parientes Mayores guipuzcoanos (1265-1548)*. Iturriak, 2. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 2000. (31. or.).

<sup>23</sup> XX. Expediente relativo al reconocimiento y jura de la reina Isabel, hecha por la Provincia en la Junta de Basarte a 14 de enero de dicho año y conformación de los Fueros y privilegios de la misma por los comisarios enviados por ss. mm. Anton de Baena y Bartolome de Zuloaga. GAO. Gipuzkoako Artxibo Orokorra. Tolosa. 1475. urtea. JD IM 1/11/20. (1-10. or.).

<sup>24</sup> ONAINDIA, S. *Euskal Literatura (I)*. Etor argit. Bilbo, 1972. (48. or.).

<sup>25</sup> TRUCHUELO GARCIA, S. *Guipúzcoa y el poder real en la Alta Edad Moderna*. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 2004. (363-366. or.).

<sup>26</sup> XX. 1475-I-2. Segovia. Emplazamiento de Juan Sanchez de Zumeta, alcalde de Azkoitia, y otros, a petición de Martín Perez de Idiakaitz, sobre una sentencia dada por ellos contra este. Simancasko Artxibo Orokorra. Registro General del Sello. I-1475. 104. 2.folia.

<sup>27</sup> XX. 1475-I-14. Segovia. Emplazamiento de Martin de Epelde, a petición de Martin Perez de Idiakaitz, sobre el apeamiento y amojonamiento que hicieron Martin Otxoa de Ieraran y otros. Simancasko Artxibo Orokorra. Registro General del Sello. I-1475. 109. folioa.

<sup>28</sup> XX. 1476-II-19. Tordesillas. Carta de seguro a favor de Juan Alos de Amilibia, vecino de Deba, y a los que acompañen en la jornada contra el “adversario de Portugal”. Simancasko Artxibo Orokorra. Registro General del Sello. II-1476. 68. folioa.

<sup>29</sup> XX. 1476-IV-10. Madrigal. Carta a las justicias de la provincia de Gipuzkoa y Bizkaia a petición de Pedro Juan Barrera, para que pongan en secrestación una carabela que trajo Juan Alos, vecino y armador de la villa de Deba. Simancasko Artxibo Orokorra. Registro General del Sello. IV-1476. 257. folioa.

<sup>30</sup> XX. 1476-VIII-8. Tordesillas. Carta reeptoria a favor de Juan Alos de Amilibia para que se admitan sus porbanzas en el pleito que trata con Juan Barrera, sobre razón de la carabela que aquel tomó. Simancasko Artxibo Orokorra. Registro General del Sello. VIII-1476. 567. folioa.

<sup>31</sup> XX. 1476-?-?. A los justicias de la villa de Deba a petición de Juan Alos de Amilibia para que si este tuviera bienes raíces en dicha villa por valor de la carabela que tenía embargada, la desembarguen, dando fiadores sobre ello. Simancasko Artxibo Orokorra. Registro General del Sello. VIII-1476. 567. folioa.

<sup>32</sup> XX. 1476-VI-15. Gasteiz. Carta al doctor Lillo, oidor de la audiencia del Consejo Real, y a Alvaro Nava y a mosen Boscán, capitanes de Armada, a petición de Domingo Sanchez de Akua, vecino de la villa de Zumaia, para que den a este parte de una nao que habían tomado. Simancasko Artxibo Orokorra. Registro General del Sello. ?-1476. 829. folioa.

<sup>33</sup> ORELLA UNZUE, J. L. *Estudio iushistórico de las Juntas de Gipuzkoa hasta 1550*, in *Las Juntas en la conformación de Gipuzkoa hasta 1550*. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1995. (166. or.).

<sup>34</sup> IMIZKOZ, J. M. *Muga berrien bila: 1516-1700*, in *Donostiaren Historia*. Miguel Artola argit. Donostia, 2001. (33-35. or.).

<sup>35</sup> XX. 1476-XI. Toro. Confirmación a favor de Pedro de Idiakaitz de cierta heredad que le dejó su padre. Simancasko Artxibo Orokorra. Registro General del Sello. XI-1476. 714. folioa.

<sup>36</sup> ZUMALDE IGARTUA, I. Colección documental del Archivo Municipal de Oñati (1149-1492). Fuentes documentales medievales del País Vasco, 50. Eusko Ikaskuntza. Donostia, 1994. (100-102. or.).

<sup>37</sup> BARRENA OSORO, E. *Gipuzkoako Komunikabideen Historia. 1/ Aintzinaroa eta Ertarora*. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1991. (138. or.).

<sup>38</sup> DIEZ DE SALAZAR, L. M. *Ferrerías guipuzcoanas. Aspectos socio-económicos, laborales y fiscales (siglos XIV-XVI)*. Donostia, 1977. (385, 405. or.).

<sup>39</sup> XX. 1478-I-11/IX-15. Azpeitia. Expediente de amojonamiento. Azpeitiko Udaleko Artxiboa. Secretaría.

Patrimonio. Bienes. Expedientes de amojonamiento. 785-16. (10-12, 14, 18. or.).

<sup>40</sup> PFANDAL, L. Juana la Loca. Austral bilduma, 17. Espasa-Calpe, S.A. Madril, 1945. (14, 26, 27, 38, 39. or.).

<sup>41</sup> XX. 1478-XII-2. Medina del Campo. Ejecutoria a petición de los herederos de Pedro Juan Barrera, vecino de Mallorca, de sentencia contra Juan Alos de Amilibia, vecino de Deba, sobre la toma y presas hechas por este en una nao de aquel. Consejo [II.1375]. Simancasco Artxibo Orokorra. Registro General del Sello. XII-1478. 19. folioa.

<sup>42</sup> “Zuhube” leku-izenaren esanahiaz Mikel Zalbide Elustondo euskaltzainak emandako azalpena kontuan hartzekoad elai ruditzenz aigu. Azkenb atean, “Zuhu+be”d ituh itzak,e tal ehenz atiad aa rgitub eharrekoa,b igarrenak beheko aldea edo azpia esan nahi duelako. Gure inguruko zenbait hizkuntzatan hitz berarekin adierazten dira zura eta basoa. Ingeleseaz, “wood” erabiltzen da biak adierazteko. Gauza bera gertatzen da frantsesez “bois” izenarekin. Halaber alemanez “holz” hitzarekin. Hau da, aldi berean baso eta zura edo egurra esan nahi dute. Espainieraz Soriako Agreda eta Soria hiriburuaren artean dagoen “Puerto de Madero” ere, azken batean “Basoko Portua” da. Beraz, gure “Zuhube” “Basoazpia” izango litzateke. XV. mendean baso handia zegoen Ezenarro eta Egaña baserria lotzen dituen lerrotik Ernio aldera. Orduan ingurune horretan ez baitzen baserririk.

<sup>43</sup> LARRAÑAGA ZULUETA, M. eta TAPIA RUBIO, I. Colección documental del Archivo Municipal de Hondarribia. Tomo I (1186-1479). Fuentes documentales medievales del País Vasco, 48. Eusko Ikaskuntza. Donostia, 1993. (200, 201. or.).

<sup>44</sup> SALABERRI ZARITIEGI, P. Euskal Deiturategia: Patronimia. Udako Euskal Unibertsitatea argit. Bilbo, 2003. (238-243. or.).

<sup>45</sup> ENRIQUEZ FERNANDEZ, J. eta beste. Archivo General de Simancas. Registro General del Sello. Vizcaya (1484). Fuentes documentales medievales del País Vasco, 119. Eusko Ikaskuntza. Donostia, 2003. 352. agiria. (127. or.).

<sup>46</sup> DIEZ DE SALAZAR, L. M. eta AIERBE, R. M. Juntas y Diputaciones de Gipuzkoa (1554-1557. Documentos). II.alea. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1990. (240. or.).

<sup>47</sup> ENRIQUEZ FERNANDEZ, J. eta beste. Libro de visitas del corregidor (1508-1521) y libro de fábrica de Santa Maria (1498-1517) de la villa de Lequeitio. Fuentes documentales medievales del País Vasco, 44. Eusko Ikaskuntza. Donostia, 1993. (200. or.).

<sup>48</sup> XX. 1479-XI-14. Toledo. Provisión a petición de la muger e hijos de Pedro Juan Barrera, vecino que fue de Mallorca, nombrando a Esteban de Vargas juez executor de las sentencias dadas a su favor, contra Juan Alos, vecino de Deba, en la causa contra él seguida por robo. Consejo. [II.2102]. Simancasko Artxibo Orokorra. Registro General del Sello. XI-1479. 107. folioa.

<sup>49</sup> XX. 1479-XI-14. Toledo. Para los justicias de Bizkaia y para Esteban de Vargas, para que embarguen los bienes de Juan Alos, vecino de Deba, y de sus fiadores, en la causa contra él seguida por la carabela y mercancía robada al sobredicho Pedro Juan Barrera, por cuanto no cumplieron con los compromisos adquiridos. Rey. [II.2103]. Simancasko Artxibo Orokorra. Registro General del Sello. XI-1479. 110. folioa.

<sup>50</sup> XX. 1479-XI-14. Toledo. Seguro a Pedro Bondo (Biondo o Brondo), vecino de Mallorca, y los suyos, contra Juan Alos, Juan de Arbolantxa, Lope Sanchez de Berrondo y otros que se citan. Rey. [II.2111]. Simancasko Artxibo Orokorra. Registro General del Sello. XI-1479. 25. folioa.

<sup>51</sup> RODRIGUEZ HERRERO, A. Valmaseda en el siglo XV y la aljama de los judíos. Fuentes documentales medievales del País Vasco, 28. Eusko Ikaskuntza, 1990. (241. or.).

<sup>52</sup> XX. 1480-II-2. Toledo. Provisión a petición de la muger e hijos, herederos de Pedro Juan de Barrera, natural de Mallorca, ordenando a los justicias de Hondarribia ejecuten ciertas sentencias que ganaron contra Juan Alos de Amilibia, embargándole para pago de las penas en ellas impuestas, una nao por él construída. Reyes. Simancasko Artxibo Orokorra. Registro General del Sello. II-1480. 254. folioa.

<sup>53</sup> XX. 1480-II-10. Toledo. Revocación, a petición de los herederos de Pedro Juan Barrera, vecino de Mallorca, de una carta de finiquito ganada por los vizcainos que se citan fiadores de Juan Alos de Amilibia en el proceso por robo de un carracón a aquél perteneciente, y poder del corregidor de Bizkaia y a otros jueces para ejecutar las sentencias anteriormente dadas contra aquellos. Reyes. Simancasko Artxibo Orokorra. Registro General del Sello. II-1480. 171. folioa.

<sup>54</sup> XX. 1480-V-19. Toledo. Comisión de Domenjon Gonzalez de Andia, juez árbitro en el pleito de Pedro Brondo de Mallorca, que como procurador de la mujer e hijos de Pedro Juan Barrera, trata con Sabad de Azkue, vecino de Hondarribia, sobre la parte que este dice corresponderle en el navío embargado a Juan Alos de Amilibia. Reyes. Simancasko Artxibo Orokorra. Registro General del Sello. V-1480. 217. folioa.

<sup>55</sup> ENRIQUEZ FERNANDEZ, J. eta beste. Archivo General de Simancas. Registro General del Sello. Vizcaya (1480-1482). Fuentes documentales medievales del País Vasco, 77. Eusko Ikaskuntza. Donostia, 2007. (25-28, 130-140, 153-159. or.).

<sup>56</sup> XX. 1480-III-22. Toledo. Comisión del doctor Villalón en el pleito que tratan Pedro Otxoa de Iribe y Martin de Amilibia, sobre ciertos quintales de lino y cueros que aquel demanda. Consejo. Simancasko Artxibo Orokorra. Registro General del Sello. III-1480. 90. folioa.

<sup>57</sup> XX. 1480-IV-26. Toledo. Escribanía de cámara y notaría pública a Pedro de Idiakaitz, vecino de Azkoitia, hijo de Martin Pérez de Idiakaitz. Reyes. Simancasko Artxibo Orokorra. Registro General del Sello. IV-1480. 6. folioa.

<sup>58</sup> ROLDAN GUAL, J. M. Colección documental del Archivo Municipal de Hondarribia. Tomo II. 1480-1498. Fuentes documentales medievales del País Vasco, 64. Eusko Ikaskuntza. Donostia, 1996. (15-17. or.).

<sup>59</sup> BILBAO, L. M. *Austriarrak: bizitza materiala*, in Euskaldunak Historian barrena. Jokabideak, pentsamoldeak eta eguneroko bizitza. Gipuzkoako Aurrezki Kutxa. Donostia, 1989. (166. or.).

<sup>60</sup> AGINAGALDE, B. Gipuzkoako dorretxeak eta leinuak. Bertan 11. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1997. (46, 47. or.).

